

## ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Ez da ezer gertatzen; bihar garai oso bat gertatuko da MIKEL ZUBIMENDI > 11

EUSKAL BALEAZALEAK: Bizitza arriskatuz, Euskal Herrira aberastasuna ekarri zuten marinelek > 12

2016ko abenduaren 10a | X. urtea • 497. zbk.  
0,50 euro

# GAUR8


mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)

# FIDELI ESKER MUNDUA HOBEA DA > 8

Ronaldo SCHEMIDT | AFP







**Historiaren errimak, hain berdin eta hain ezberdin** 04

**Afrikako herriek beren lagun handi eta eskuzabalena galdu dute Fidel Castro hiltzean** 08

**Bizitza arriskatuz, Euskal Herrira aberastasuna ekarri zuten marinelek** 12




**Material berrien Bilbo** 18

**Elkarrizketa: Joseba Tapia** 22

**Inguruko hegaztiak** 26

**In fraganti: Javier Hernandez Landazabal** 28

**Egañaren behatzulotik** 31



## SINADURAK:

**03 Gorka Elejabarrieta:**

Erreferenteak

**10 Unai Fernandez de Betoño:**

Hiriburuetako arnaguneak

**11 Mikel Zubimendi:** Ez da ezer

gertatzen; bihar garai oso bat gertatuko da

**15 Mirari Martiarena:** Niraultza

**17 Ainara Azpiazu AXPI**

**21 Arantxa Urbe:** Hezkuntza eskubidea lortzeko

**27 Koldo Sagasti:** Maccabi, kiroletik harago

**30 Maria Gonzalez Gorosarri:**

Bortxaketa ez da sexua (2)

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

# Erreferenteak

**F**idel Castroren izarra amatatu da, Nelson Mandela ere duela ez asko joan zitzaigun, eta badirudi haien joanarekin belaunaldi eta garai oso bati amaiera eman zaiola. Kuba eta Hegoafrikak erakutsi ziguten borroka dela injustizia garaitu eta askatasuna lortzeko bide bakarra. Beraiekin ikasi dugu ez dagoela “E egunik” eta iraultza edo aldaketa sozialak egunero, etengabe irabazi eta eraiki behar direla. Borroka, beraz, ez da amaitzen Batista edo *apartheid*-a garaitzearekin batera, ez du etenik eta ez du amaierarik, eta bidea ez da zuzena, bihurtune, kontraesan eta oztopoz beteta dago, nahiz eta norbera gobernuan egon, edo bereziki norbera gobernuan dagoenean.

Bobby Sands ere Irlandaren askatasunaren alde borrokan joan zitzaigun, eta gogoan dugu errepublikano irlandarrek prozesuaz eta bidez erakutsi diguten gutzia ere; tartean prozesuan aurrerapausoak ematen ditugunean beti daudela atzerapausoak ere, eta, ondorioz, ezinbestekoa dela iparrorratza etengabe neurteza eta gertakari konkretuen baloraziotik haratago prozesuaren ikuspegi orokorra lantzea.

Raul Sendic uruguaitarra tupamaroen sortzaileetako bat izan zen, borroka, kartzela eta erbestea ezagutu zituen; 1989an hil zen Parisen, 63 urte zituela. Jakin bazekien mugimendu politiko askatzaileentzat helburu, balore eta printzipioak direla ezinbestekoa, eta ez norberak erabakitzen dituen taktika eta estrategia politikoak. Azken horiek egoera eta aukeretara moldatu beharra dagoela ondo zekien, kameleoiak bere azal koloreekin egiten duen bezala.

Erakutsi zigun irabazteko modu eta bide ezberdinak daudela, eta nazio askapen mugimenduen lehen bete-beharra hori dela, helburuak lortzea, norbere herria aldatu mundua ere aldatu ahal izateko. Borroka armatua amaitu eta ezberdinekin lan egiteko pausua eman zuen, tupamaroak Fronte Zabaleran eramanen. Finean, edozein aldaketa gauzatu ahal izateko herriaren gehiengoaren babesa behar delako, etengabe gainera, babes hori ez baita egun edo momentu batean lortu behar, hartzen dituzun erabaki guztietan baizik. Gaixota-

sunak ez zion bide eta erabaki horrek gero ekarriko zituena ezagutzeko aukerarik eman, tartean ez zuen Pepe Mujica, bere arma eta kartzela kidea, Uruguaiako presidente bilakatuko zen unea ikusterik izan. Eta hala ere, Pepe Mujica berak hainbestetan oroitarazten digun bezala, nahi eta amesten dugun gizarte justuago hori eraikitzeko bidea luzea da eta gobernu edo instituzioetatik bakarrik ezin da lortu.

Angela Davis Euskal Herrira etorri zen duela ez asko, eta herri zein mundu justuago hori imajinatu eta marraztu behar dugula esan zigun, militantzia eta aktibismo politikoaren apologia egin zigun, hori baita gauzak aldatzeko bide bakarra. Konpromiso indibiduala eta kolektiboa, eta kolektiboarekiko leialtasuna. Ezkerak izan duen eta duen zatiketarako joera historiko larria gaindituz, batzen gaituenaren inguruan gehiengoak eskuratzea ezinbestekoa baita.

Belaunaldi berriak borrokara lotu behar dira, beraiek baitira Kuban, Hegoafrikan, Irlandan, Uruguain edota Euskal Herrian egun zahartuta edo hilda dauden horiek hasitako bidea jarraitu behar dutenak

Eta urrutira joan gabe, badira Euskal Herrian ere, hamarkada luzeotan joan zaizkigun kide eta lagunak. Erreferente eta konpromiso adibide izan direnak. Pertsona, erreferente asko joan zaizkigu, baina mugimendu politikoek jarraitzen dute, eta hori da ezinbestean ziurtatu beharrekoa. Belaunaldi berriak, gazteak, borrokara lotu behar dira, beraiek baitira Kuban, Hegoafrikan, Irlandan, Uruguain, Euskal Herrian eta munduko edozein txokotan egun zahartuta edo hilda dauden horiek hasitako bidea jarraitu behar dutenak.

Egindakoa ahaztu gabe, esperientzia kolektibo eta norbanako horiek guztiak ezinbestekoak baitira aurrera begirako erabaki egokiak hartzeko. Eta badira munduan adibide eta esperientzia iturri oparoak. Ezkerreko balore eta borrokan globalizazioa da bidea, norbere herriak aldatuz mundua aldatu ahal izateko. •



# HISTORIAREN ERRIMAK

## Kaligula-Trump, Ivan Izugarria-Stalin: nondik heldu josten dituen haria?

ANALISIA / Mikel Zubimendi Berastegi

**H**istoria errepikatzen dela maiz entzunda. Historiak errepikapen hori zuela bere-berezko akatsa zioen Darwinnek. Sofoklesen arabera, berriz, historia bera errepikatzen da bakoitzak bere buruan baino ez duelako pentsatzen. Eduardo Galeanok historia entzuten ez dakitenentzat penitentzia bezala errepikatzen zela zioen. Nik neuk Robert Colombo poetak Mark Twaini egotzi zion aforismoa maite dut bereziki: “Historia ez da errepikatzen, baina errimatu egiten du”. Alegia, badaudela asonantziak, paralelismo txundigarriak, herri, garai eta pertsonaia historikoak lotzen dituen hari moduko bat.

Kaligulak eta Trumpek ba al dute inolako antzik? Eta Mussolinik eta Trumpek? Eta Ivan Izugarriak eta Stalinekin? Edo Putinekin? Erromako enperadoreen

artean eroena, krudelena eta gaiztoena bezala pasa da historiari Kaligula. Haren izena botere absolutuaren gehiegikeriaren sinonimo da. Psikopata total bat. Ivan Izugarria, aldiz, nolabait, “aingeru erori” bezala pasa da historiara. Batzuentzat –Errusian azkenaldiotan gero eta gehiagorentzat– aingeruago eta, besteentzat, guztiz “eroria”, munstrokeria eta horroreen ikur.

Botere osoa bereganatzeko eskubide dibinoa izatearekin erabat itsututa, jainkotasunera iristeko azken muga pasaezina dela ulertzeko ezgai.

Ezeren aurretik bihoa aitopena: ez da batere samurra ebidentzia arkeologiko edo lekuko zuzenen kontakizunik gabeko pertsonaia historikoen inguruan idaztea. Eta, hala ere, sehaskatik hilobiraino, beren bi-

zitzak imajinatuak, mitifikatuak izan dira oso. Ivan IV.a Errusiakoaren kasuan, *Ivan Izugarria* legez ezagunagoa dena, adibidez, ez dago erretratu egiazkorik; bizirik zela ez zuten tsarra sekula koadro batean pintatu eta liburuetako irudiak imajinarioak dira osoki.


“Badirudi”, “baliteke”, “beharbada”, “ia ziur”... tonu horretan idatzi beharko litzateke azterketa hau. Historiaren begietatik ikusita, subjektu ilunak dira aztertutakoak, haien inguruko informazio asko dudazkoak diren neurrian. Ez dagoelako haien idatzizko gutun edo agindurik gordeta. Ivan Izugarriaren inguruan, esaterako, dakigun guztia lau egileren eskutik dakigu, hiru mendebaldar –Schilichting, Taube eta Kruse–, eta, bestea, errusiarra –Ivanen agintaldian erbesteratu zen Kurbsky printzea–.

Aitorpena eginda, murgiltzen garen gaia irristakorra den eta hainbat hipotesi formulatzeak arrisku handiak dituen jakitun, historiaren errima ezberdinen puntak hartu eta apurka-apurka josiko dugu pieza hau.


### ESPEKTAKULUAREN MAITALE

Trumpek bezala, espektakulua maite zuen Kaligulak. Mozorroarekiko eta makillajearekiko gustu espeziala zuen. Eta Trump bezala, jendea mintzen eta umiliatzen dibertitzen zen osoki. Errendimendu politikoa ateratzen zuen.

Kaligulak ez zuen Erromako balore tradizionalekin interesik: bere aurreko Tiberius edo Augusto enperadoreen guztiz kontrakoa bidea hartu zuen. Trumpek, Kaligulak Erromako *establishment*-a mespretxatu zuen gisara mespretxatu du Washingtongoa. Kaligulak Erromako Senatuko elitearen duintasuna zauritu zuen zaborra zirela zabalduz, eta konturatu zen, ongi konturatu ere, Erromako populuak, masa sozialak, asko maite zuela hori. Ez al du berdin egin AEBetako populuak, masa sozial handi batek, Trump botoarekin saritu duenean? Trumpek hainbatetan erabili duen “*rigged and crooked establish-*



Ezkerrean, Putinen baimenarekin Errusiako Oriol hirian ezarri duten Ivan Izugarriaren lehen estatuaren irudia. Eskuinean, Kaligularen bustoa. Behean, bi pertsonaioak zinemara eramanez diren filmen fotogramak. GAURB



## Kaligulak bezala, Trumpek espektakulua maite du. Kaligulak Senatua bezala, Trumpek «establishment»-a barregarri uztea du gustuko. «Besteak» umiliatuz botoak ateratzen ditu

### Trump Mussolinirekin parekatu eta faxismo modernoago baten erakusgarria dela esateak laguntzen al du bere inguruko fenomeno politikoa ulertzen?

ment” hori, hots, sistema iruzurgile ustela, ez al da Kaligulak Senatua tratatzeko erabiltzen zuen erretolikaren parekoa? Kaligularen eredu jarraituz, hasiera-hasieratik “politikoki zuzenaren” kontra eginez, tradizio politikoa “estandar moralei” eraso eginez, bere helburua lortu du Trumpek: masek babestu egin dute, presidente egiteraino.

Trump ez zen hautagai “normal” bat eta orain ere ez da presidente “normala”. Mehatxu (zahar)berriak inkubatzeko dituen fenomeno bat da. Erresumina eta erdeinua sortu eta horien gainean egiten du politika, jokatzeko du politikoki. Bere diskurtso publikoetan “besteak”, askotariko “besteak” –musulmanak, mexikarrak, emakumeak, etorkinak, errefuxiatuak...–, erridikulizatu eta erasotzen ditu. Estatubatuarek mehatxutzat hartzen edo barre egin dezaten iseka egiteko erabiltzen ditu, pasio baxuenak xaxatuz.

Milioika herritarrek leialtasuna erakutsi diote. Supremazista zuriak sartu ditu kabinetean. Kleptokrata autoritario bat da. Esajeratu gabe esan daiteke bere garaipenak bizi dugun garai historikoaren galera moralak eta mehatxu beldurgarriak erakusten dituela.

Nork egin diezaioke aurre, bere alde masa mugimendu sendo bat izateaz gain, poltsikoan dirutza itzela eta bere zerbitzura munduko potentzia handienaren bitartekoak dituenari? Armada boteretsuena haren aginduetara dago, CIA, FBI, bi ganbera legegileen kontrola, Auzitegi Gorena... dena du kontrolpean. Eta horren guztiaren kontrola duela, umilagoa, zentzuzkoagoa, eskuzabalagoa egingo al da Trump? Aurrerantzean ez dela hain mendekaria izango uste duenik ba al dago?

#### TRUMP-MUSSOLINI, BIAK FAXISTA?

Mussolini bezala, Trump ere faxista dela esan daiteke? Zaldiz ibiltzeko botekin eta besoa luzatuta agurtuz ez dabilen faxismo modernoago baten erakusgarria? Trumpen eskutik sartu dela faxismoa AEBetan? Bere agindupean AEBak disidenten herri

bilakatuko direla? Basakeria eta krudelkeria, normaltasun berri baten zeinu izango dira? Trump faxista dela esatea haren botoemaileen izena belztea, iraintzea al da?


Kontu ibili behar da “faxismo” hitzaren erabilerekin. Zentzu politiko eta historiko zehatza

du. XIX. mendeko Action Française kontsidera daiteke Europako lehen erakunde faxista, Mussolinik bihurtu zuen Italia Europako lehen herrialde faxista eta Hitlerren nazional-sozialismoak jarraipena eman zion. Hungariak, Espainiak, Kroaziak, Portugalek... iragan mendeko



Goian, Donald Trump, AEBetako presidente berria. Behean, ezkerrean, Benito Mussolini. Eskuinean, Iosif Stalin.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS



30eko eta 40ko hamarkadetan faxismoa ezagutu zuten. Historikoki, XX. mendeko Europan izan ziren erregimen autoritario eta zinez biolentoak deskribatzen ditu “faxismo” hitzak. Baina bataila politikoetan aurkaria Mussolini edo Hitlerrekin berdintzeko erabili den eslogana ere bada. Faxistak ez ziren politikari askori faxista deitu zaiela egia galanta da, bai.

Zeintzuk dira, baina, Donald Trump eta Benito Mussolini lotzen dituen hariaren puntak? Historiaren beste errima tragiko baten aurrean al gaudu? Ala kontu handiz ibiliz egin beharreko konparazio edo hipotesia ote da?

Estatubatuarek gertu al du te odola Trumpen gloriaren eta AEBen patu hilezkoaren alde emateko? Hitlerrek eta Mussolinik ez zuten beraien benetako aurpegia erakutsi hasieran, berdinetan al dabil Trump ere? Laguntzen al du Trump faxista bat dela esateak haren garaipena ulertzeko? Demokraziaren perbertsioa bultzatzea eta faxismoa sinonimoak ote dira?

Eta, hala ere, badira zantzuak. Robert Paxtonen “The Anatomy of Fascism” liburu aski ezagunean, faxismoak bederatzi pasio mobilizatzen dituela defendatzen da. Horietako bostek Trumpen botoemaileen aldardea ordezkatzeko dutelakoan nago: бага, erabateko krisi baten sentipena; biga, taldearen gainbeheraren beldurra “globalizazio korrosiboaren, klase gatazkaren edo kanpo eraginen” ondorioz; higa, komunitate puruago baten beharra; laga, lider natural baten autoritatearen behar gorria; eta boga, liderraren nagusitasun erabateko arrazoi abstraktu edo unibertsalen gainetik.

Beste lau, ordea, ez dira horren argiak Trumpen kasuan: бага, norbanakoa diluitua, taldearen aurrean azpiratua izatea; biga, norberaren taldea biktima den ustearen gainean, edozein ekintza mota, lege edo moral mailako mugarik gabe, justifikatzea; higa, biolentziaren edertasuna; eta, azkenik, la-



ga, “jainkoe aukeratutako herriak” besteak dominatzeko duen eskubidea, inolako lege gizatiar edo jainkotiarren oztoporik gabe.

#### KALIGULA, TRUMPEN MAISU?

Historiara ero megalomaniko bat bezala pasa zen Kaligula, hain ero ze “Incitatus” bere zaldirik gustukoenari jauregi bat eman zion, purpurazko jantziekin janzten zuen, zerbitzarien segizio bat ipini zion eta kontsul izendatzea ere pentsatu zuen –enperadorearen azpitik kargu politiko altuena–.

Bada animalien trataera bixi hori txantxa hutsa izan zela dioenik. Horrela, Kaligulak Erromako aristokrazia satirizatu nahi izan zuela. Izan ere, luxuaren eta ohore hutsalen beren bilaketekin, zaldia bezain barregarri azaltzen ziren. Hizkuntza doblea, hipokresia eta zurikeriaren absurdua nagusi zelako Senatuan.

Kaligula lau urtez egon zen Erromako tronuan, K.a. 37. eta 41. urteen bitartean. Germanicus printze inperial ospetsuaren semea zen eta haur zenetik aitaren kanpaina militarretan parte hartu zuen. Hain zuzen, *Kaligula* ezizena (hots, “bota txikiak”) ipini zioten jantzi militar txikiak, botak barne, jantzen zituelako. Askazi onekoa izanik, 24 urterekin igo zen tronura, aitaren famak eta ama, Agrippina, Augusto lehen enperadorearen ondorengoa izateak lagunduta.

Kaligularen agintaldiaren gaineko kontakizun gehienek bere krudelkeriaz, gehiegikeriez eta erokeria klinikoaz dihardute. Antsietate, insomnio eta haluzinazio nahasketa beldurgarria uzten digute.

Kontakizunok diotenez, bere burua Jainkotzat hartzen zuen, Jupiterrekin hitz egiten zuen eta Ilargiko Jainkosarekin egiten zuen lo. Suetonio historialari eta biografo erromatarrek, Kaligula hil eta ehun urtera idatziriko biografian, izugarrikeriak kontatzen ditu, sadismo kapritxoso baten erradiografia eginez. Haren arabera, Kaligulak semearen exekuzioa ikus-



Goian, Iosif Stalin, hainbeste miresten zuen Ivan Izugarriaren ondoan. Behean, Ivan Izugarria bere seme zaharra hiltzen erakusten duen Ilya Repinen koadroa. GAUR8

tera behartu zuen gizona berekin jauregian afaltzera gonbidatu zuen egun berean. Zer demontre zela-eta joan zen gizona afaltzera? Sentsilloki, beste seme bat bizirik zuelako.

Beste behin, Kaligula gaixo zegoela, erromatar batek zin egin zuen bizirik ateratzen bazen bere bizia eskainiko ziola. Sendatzean, zina errespetatu egin behar zela agindu zuen

Kaligulak. Hitzaz hitz eta betetzekoa zelako, jo eta bertan hil zuen. Kaligula zinemara eramanean ere, gehiegikeriak izan dira protagonista pantailan; Kaligula eta Drusila bere arrebarekin arteko intzes-tua, “gore” estilo erabatekoa...

Kaligularen aginte modua autokratikoa zen. Bere estiloaren aztarnak ondo ezagunak dira: besteak barregarri uztea, umi-

liazioa, nabarmenkeria eta kapritxoa. Munstrokeria eta Kaligula eskuz esku doaz iraganeko nola egungo errelatoetan. Kaligularen heriotza ere bere izaeraren isla izan zen: bere guardia pretoriarraren buru bati, burlati, «neska bat bezala» hitz egiten zuela esan omen zion eta bizkartzainak labankadaz hil zuen.

#### MASAZKO TERROREA, BIDE BAKARRA

Entziklopediek diotenez, Ivan Izugarriak Errusiari egin zizkion ekarpenak garrantzitsuak eta handiak dira oso. Besteak beste, bere “aitatasuna” dute Siberiaren konkistak, lege kode berri baten sorkuntzak, boterea hiriburuan zentralizatu izanak, Astrakahn eta Kazan khanerri tartariarren konkistek eta barne erreforma handiek, armadarena kasu.


Ivan Izugarriaren agintaldia ez da kabitzen klase borrokaren eskema marxista batean, baina Ivanen miresle porrokatua zen Stalin: tsarraren krudelkeria eta masazko terrorea justifikatzen zituen, kanpoko etsaien aurrean estatu batu eta egonkor bat lortzeko bide bakarra zelakoan.

Ivan tsar bezala koroatu zeneko esanahi erlijioso eta politikoa ez zen bere neurrian ulertu. Konstantinoplaren erorketaren

## ANASTASIA TSARINARI AITA SANTUAREN OPARI ZAPUTZA

Duela 450 urte Ivan Izugarriaren garaiko Errusiaren eta Mendebaldeko Europaren artean zegoen ezjakintasuna, zalantzen lainoa, ez da ez gaur egun dagoenaren oso ezberdina. Hemen ere aurki dezakegu historia lotzen duen hari bat, nolabaiteko errima. Bada hori argi asko, eta umore puntu batekin, azaltzen duen pasarte historiko bat. University College London unibertsitatean Ekialdeko Europako eta Eslaviar Ikasketen Eskolan *cum laude* doktorea den Isabel de Madariagaren kontakizun batean irakurri daitekeenaren arabera, 1581. urtean Antonio Possevino aita santuaren mezulariari audientzia eman zion Ivan Izugarriak. Bada, Possevinok eramanean zituen opariaren artean, Ivanen lehen emazte eta lehen tsarina izandako Anastasia Romanovna Zakharyina-Yurievarentzat bat ere bazegoen. Kontua da, baina, eta zinez argigarria, Vatikanon inortxok ere ez zekiela Anastasia 21 urte lehenago hil zenik. Pentsa, harentzat oparia helarazi nahi izan zuenerako, Ivan Izugarria berriz ere, beste behin, ezkondua zegoen: hori bai, bere zazpigarren emaztearekin!





**Ivan Izugarriak eta Stalinek, biek handitu zituzten beren «erreinuak», biek purgatu zuten armada eta biek erabili zuten esklabotza, batek morroiekin, besteak esklaboen lan-sistemarekin**

**Ivan Izugarria burutik jota, Pedro Handia epileptikoa, Lenin neurosifilisak hilda, Stalin paranoiko totala, Putin Asperger sindromeak jota.... Errima errusofobo zinez maltzurra**

ondoren, Erroma Ekialdeko inperioaren kristautasun ortodoxoaren zaindari papera bereganatu baitzuen. Izan ere, “tsar” hitza “zesar” hitzaren errusierazko itzulpena baino ez da; orduko Konstantinoplari ere “Tsargrad” deitzen zioten.

Ivan Izugarria hezur-muineta-raino zen erlijiosoa. Errusia “mongolen” atzaparretatik askatu zuen, kristautasunaren bete-behar dibinoa gauzatzuz: musulmanak garaitzea.

Hiru gertakarik areagotu zuten Ivan Izugarriaren paranoia eta krudelkeria. Lehena, 1547. urtean, milaka etxe eta herritar kiskaliz, Mosku erre zuen sute ikaragarria, zeinaren ondorioz haserre bizian ziren moskutar alde batek bere osaba hiltzeraino harrikatu zuen katedralean, eta, bere amona, sorgina zelakoa, hiltzea eskatu zuen. Bigarrena, 1553. urtean Ivanek gainditu zuen gaixotasun larria, bere heriotza aurreratuta konspiratu zutenak mendekatzera eraman zuena. Eta, hirugarrena, 1560. urtean, Anastasia emaztearen heriotza, Ivanentzat pozoituta hil zena. Ebidentziarik ez dagoen arren, orduz geroztik, inhibizio guztiak galdu eta bere onetik zeharo atera zen antza.

Bere izugarrikeria okerren lekuko eta lagungarri izan zena, 1564. urtean agindu zuen Errusiako banaketa izan zen. Bi zatitan partitu zuen herrialdea. Bata bere erabilera eskusiborako, “aparteko lurak” edo *oprichnina* deitu zituenak eta, bestea, teoriar, boiardoen (lurjabeen aristokrazia zaharra) esku gertatu zena. Zerga sistema zorrotza ezarri zuen, *oprichniki* in-

dar armatua ezarriz *oprichnina*-ra batu beharreko lurren jabeak kanporatu edo hiltzeko. Bere paranoia legitimatu behar zela zioen, tirano bezala ofizialki onartu behar zela, hots, edonor zigortzeko eskubidea zuela.

Salatari kontsideratzen zituenen kontra purga latzak egin zituen. Publikoan exekutatu zituen printzeak, *oprichnina*-ren aurkako boiardoek burua moztu zien eta beren emazteak etxeetatik zintzilikatu zituen.

Behinola, boiardo handia zen Ivan Fyodorov tronura deitu eta tsar izan behar zuela agindu zion. Ivanen jantziak jarri, bere errege-makila hartu eta errege tronuan ezartzera behartu zuten. Ivan Izugarriak bere burua jaitsi zuen haren aurrean, belau-nikatu egin zen eta uneaz gozatzeko esan zion, Fyodorov bihotzean emandako labankada batez hil baino lehen. Bere gorpua Moskuko kaleetan zehar ibili zuten, haren lurretan bizi ziren gizon, emakume eta haurrak masakratu zituen; asko, eskarmentu gisa, zutoinetan sartu eta zintzilikatu zituen.

#### STALIN, IVAN IZUGARRIAREN MIRESLE

Ezaguna da Stalinek Ivan Izugarriarekiko zuen miresmena. “Gidari handi eta jakintsutza” zuen. Sergei Eisenstein zine zuzendariak tsarraren erretratua bi pelikuletan eman zuenean, Stalinek asko maitatu zuen lehena –Errusiaren handitasun eta aldaketaren aldeko gerlari legez azaltzen zuen– eta purrusta latzak bota zituen bigarrena-rekin –Ivanek bere burua nola galtzen zuen erakusten zuena–.

Bai, nolabaiteko errima bat badago bi pertsonaion artean. Biek estimu propioaren eta us-tez defendatzen zuten herrialdearen interesen arteko oreka bistatik galdu zuten. Biek atera zuten onura salaketa kultura itsu batetik, administrazioan postu bat eta ondasunak esku-ratzeko lagunak eta etxeokak sal-tzeraino hedatu zena. Biek handitu zituzten beren “erreinuen” lurraldeak. Biek ahuldu zituzten beren armadak purga latzekin, eta, ondorioz, Stalinek Hitlerren inbasioa eta Ivan Izugarriak Krimeako tatariarrek Mosku nola arpilatu zuten ikusi zuten. Biek erantzun zioten garaiko erronka ekonomikoei esklabotza sistemak ezarriz: Stalinek esklaboen lan-sistema, Ivanek, morroiena. Biek, beren alorretako “autoritate” izateaz gain, bestelako alorretan ere berdin kontsideratuak izatea nahi izan zuten. Stalinek, arte mailan, literaturan bereziki. Ivan Izugarriak, erlijioan. Bere bizitzaren parte handi bat monasterioetan, erromesaldietan eta otoiitzean pasa zituen, bere izugarrikeriak aurreratu edo atzeratzen zituzten gogo ariketetan. Kristautasun ortodoxoaren merituak goratu eta luteranoen eta erromatarren heresiak madarikatzen zituen.


#### AZKEN BITXIKERIA BATZUK

Kuriosoa da Mendebaldeko komunikabideek historian Errusiako agintari izan direnak buruko gaixotasunekin lotzeko izan duten joera. Ivan Izugarria burutik erabat eginda zegoen; Pedro Handia epileptikoa omen zen; Lenin neurosifilis batek hil

zuela idatzi da; Stalinek burmuineko arteriosklerosia zuen eta osoki paranoikoa omen zen; eta, nola ez, Putin Asperger sindromearekin lotu dute, espektro autistaren barruko desordena-rekin. Errima zinez maltzurra dirudi, errusofobiaren erakusle.

Bitxia da, halaber, gizakiak Jainkoa egin zuenean nahita eman zion anbiguotasuna. Alde batetik, botere gorenaren tronua lurreko gizon boteretsuena-ren eskutik urrutiratu zuen, errege eta enperadoreak umil izatera behartuz. Bestetik, baina, gidari gorenak soilik Jainkoaren aurrean, haren eta ez beste inoren aurrean belaunikatu behar omen du, ez inongo lege edo erakunde lurtarren aurrean. Historian, finean, biolentzia dibinoa medio, bakoitzaren ekin-tzak okerrak purifikatzeko ziren uste izan da sarri. Norberaren sardismoak sorleku jainkotierra zuela. Krudela izan behar dela herria “bekatutik” askatzeko. Horren adibide franko dira. Eta al-bistegietan, errima ozen dabil...

Behean, Iosif Stalin, Sobietar Errepublikaren Sozialisten Batasuneko buru izandakoa.  
GAUR8





# KUBAREN ERAGINA MUNDUAN

## Afrikako herriek beren lagunik handi eta eskuzabalena galdu dute Fidel Castro hiltzean

**M**odu ezin hobean deskribatu zuen afrikarren sentimendua Nkosazana Dlamini-Zuma Afrikar Batasuneko Batzordeko presidentea Hegoafrikako Johannesburgo hirian, ANC Afrikako Kongresu Nazionaleko ehunka kideren aurrean eskainitako hitzaldian: «Komandanteburua hil delako oso triste bagaude ere, bere bizitza zoragarria ospatu behar dugu». Afrikan ohikoa denez, asko maitatutako pertsona bat hiltzen denean abestu egiten dute, negar egin beharrean. Lau orduko iraupena izan zuen ekitaldian Gwede Mantashe ANCKo idazkariak ere hitz egin zuen: «Fidel Castrok milioika lagun inspiratu zituen gure herrialdean. Oraindik kubatar iraultzailearen aldetik asko dugu ikasteko». Hizlariak gogoratu zuen Kubaren esku hartzeak sekulako garrantzia izan zuela Angola, Namibia eta Hegoafrikaren askatasuna lortzeko garaian.

Gerra Hotza aipatuta, askotan Afrikaren azken hamarkadotako historiaren zati oso garrantzitsu bat estalita geratzen da, kontinente hartan ez baitziren izan Sobietar Batasuna eta Ameriketako Estatu Batuak eragina izan zuten herrialde bakarrak. Kubak bere eredu propioa garatu zuen —eta garatzen jarraitzen du, ebola izurritearen aurkako borrokan ikusi berri dugunez—, eskuzabaltasun sistematikoan oinarritutako bidea, Mendebaldeko potentziek kolonialismoari eusteko ahaleginean jarraitzen zuten bitartean.

### SOLDADUAK ETA MEDIKUAK

Piero Gleijeses historialari estatubatuarrek makina bat herrialde bisitatu ditu Kubaren ekarpenaren garrantzia behar bezala dokumentatu nahian. AEBetako, Errusiako eta Kubako artxibotan lanean denbora asko egin du. Bere lanean oinarrituta, An-

gel Guerrak “La Jornada” egunkarian gogorarazi du Kubaren esku hartzea oso garrantzitsua izan zela Aljeriak bere askatasuna lor zezan. «Askok ahaztuta dute uharteak bidalitako tropek Hassan II.a Marokoko erregeak antolatutako erasoaldia geldiarazi zutela, nahiz eta erasotzaileek AEBen laguntza izan zuten», esplikatu du Guerrak. Garai hartan marokoar erregimenak Tinduf inguruko erremubat bereganatu nahi zuen, sortu berri zen Aljeriako Estatuari sekulako kaltea eragiteko. «Orduan sortu zen, han bertan, osasunaren inguruko kubatar elkartasuna, dozenaka medikuren lanarekin». Gaur egun uharteko 30.000 mediku inguru (hirutik bi emakumeak) eta beste horrenbeste osasun langile ari dira lanean munduko herrialde pobretu askotan.

 POLITIKA / joseangel.oria@gaur8.info

Afrikako nazio askotako gobernu, erakunde, ekintzaile eta hedabide ugariak gogorarazi dute egunotan Fidel Castro zenak eta Kubako Iraultzak sekulako lana egin zutela herri horien garapenaren alde. Nigeriako Osun estatuko agintariek laburtu dute askok pentsatzen dutena: «Mundua hobea da berari esker».


Nelson Mandela zenak era honetan hartu zuen Fidel Castro Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimenduak 1998an Durbanen egin zuen bileran.  
GAUR8

Aljerian ere ez dute ahaztu Kubaren laguntza. Fidel omentzeko egindako ekitaldi batean, Abdelkader Ben Salat Abdelaziz Buteflika presidentearen eleduen esan zuen hemendik aurrera ere askatasuna eta berdintasuna nagusi den mundu bat eraiki nahi dutenek kubatar iraultzailearen bizitzan aurkitutako dutela etorria: «Ba al da bere desagertzeak planeta osoan eragin dituen sufritzen ari diren

milioika lagun sinpatia adierazpen espontaneoak baino kontsolamendu hoberik Kubako herri lagunarentzat?», galdetu zuen eleduenak.

### CUITO CUANA VALEKO BORROKA

Portugalen mendean zeuden herriak askatzeko borrokan ere (Angola, Ginea Bissau, Cabo Verde eta Mozambique) sekulako garrantzia izan zuen kubatarren laguntzak. Bertako askapen mugimenduetako ehunka kide eta buruzagi gaitu zituzten kubatarrek 1965etik aurrera. Iberiar penintsulako herrialdeko Krabelinen Iraultzak ahalbidetu zuen herrialde horien independentzia, baina kubatarrek estatu berriekin elkarlanean jarraitu zuten eta Habanak 300.000 soldadu bidali zituen Angolara 1975 eta 1988 artean, Hegoafrikako indar arrazisten erasoaldiari aurre egiteko. Adituek diotenez, Hegoafrikako erregimen arrazistari amaiera eman zion faktoreetako bat kubatarrek An-





golako Cuito Cuanavalen Hegoafrikako Armadari emandako egurra izan zen. Nelson Mandelak berak onartu zuen kubatarren ekarpenaren garrantzia, 1991n Matanzasen eskaini zuen hitzaldian: «Arrazismoa ezabatzeko Kubaren konpromiso sendoak ez du parekorik. Jakin badakigu Kubako herriarekin dugun zorra itzela dela. Beste zein herrialdek erakuts dezake horrelako eskuzabaltasuna Afrikarekiko harremanetan? Cuito Cuanavaleko porrotik gabe, gure erakundeak ez zituzten inoiz legezkatuko. Armada arrazistak jasan zuen porrot hari esker nago ni hemen orain».

Thenjiwe Mtintso Hegoafrikak Kuban duen enbaxadoreak nazioarteko politikak eragiten dituen paradoxak gogorarazi ditu Fidelen heriotzaren harira: arrazistekin bat egiten zuten potentziak hegoafrikarren "lagun" bihurtu ziren *apartheid* sistema hankaz gora bota zutenean, eta orain Kuba baztertzeko eskatzen diete hegoafrikarrei, arrazismoaren aurkako borrokan gehien lagundu zietenak baztertzeko alegia: «Gure erantzuna oso sinplea da: kubatar martirien odola da, ez 'lagun' horiena, Afrikako lurraren barrena dabilena, gure aberriko askatasunaren zuhaitza elikatzen duena».

#### ETXE ZURIKOEN HASERREA

Hegoafrikako erregimenari kosta ahala kosta eutsi nahi zioten AEBetako agintariak, eta horretarako ezinbestekotzat jo zuten Namibiari eta garaiko Rhodesiari eustea, horiek erortzean, *apartheid* sistemaren aldekoak ere eroriko zirelakoan.

Salim Lamrani idazleak Al Mayadeen hedabidean iaz esplikatu zuenez, Henry Kissinger AEBetako estatu idazkariak berak Kubaren aurkako bonbardaketa sistematikoa antolatu zuen 1976an, uharteak Afrikan egiten zuen lanaren eraginez. Gerald Ford presidentearen baimena lortu bazuen ere, operazioa bertan behera utzi zuten, gauzak erdizka egitea porrotaren tankeak zelakoan. Edonola ere, Kuba uharte txikiak Afrikan egindako lanaren garrantzia

ANC Afrikako Kongresu Nazionalako ehunka kidek parte hartu zuten azaroaren 30ean Johannesburgen egindako Fidel Castroren aldeko ekitaldian.

John WESSELS | AFP



ulertzen laguntzen du potentzia nagusiaren ezinegon horrek.

Robert Mugabe Zimbabweco presidentea Habanara iritsi zen asteartean, Fidel Castro goratzeko ekitaldietan esku hartzera. Karguan betikotzeko bere ahaleginek herrialdean eragiten dizkioten buruhausteak alde batera utzita, iraultzaile mozorroa jantzi zuen agintariak Kubako hiriburuan eta gogorarazi zuen Castrok zientzialariak gaitzeko laguntza agindu ziola: «Denborarekin, 3.000 irakasle baino gehiago prestatu zituzten eta horiek sekulako lana egin dute gure herrialdean». «Anaia mai-tea» deitu zion zenduari.

Angolan ere gogoan dute Kubak egindakoa. Jose Eduardo dos

Santos presidentek erabaki du duten autopista nagusiari "Fidel Castro Ruz Kubako Iraultzaren Komandantearen Bidea" deitzea. Herrialde horretan, Kuban ikasketak egin zituzten herritarrek Fidelen aldeko ekitaldiak antolatu dituzte.

#### «MUNDUA HOBEA DA FIDELI ESKER»

Hage Gottfried Geingob Namibiako presidentek txalo zaparrada izugarriak jaso zituen Habanan eskaini zuen hitzaldian: «Zein da askatasunaren salneurria? Fidelen borroka ez zen sekula izan etekin ekonomikoa ateratzeko, zapalduetako herriek laguntzeko baizik. Zuen interes bakarra Namibiako herriaren askatasuna zen. Baliabide asko bideratu zituen Namibiak independentzia lor zezan. Eta kubatarrek ez ziren Namibiara urre eta diamanteen bila joan: Kubara bueltan soilik borrokan eroritako lagunak gorpuk ekarri zituzten». Namibian gaur egun ere ume askori Fidel edo Castro izenak ipintzen zaizkie.

«Erraldoien artean erraldoi» deitu dio Castrori Brahim Ghali Fronte Polisarioko buruak. Gogoan du Mendebaldeko Saharako ikasle askok egin dituztela

ikasketak Kuban, ondoren Tindufen lan egiteko.

Ekuatore Gineako agintariak ere Fidelen bizitza goraiatu dute. Obiang presidentek esan du kubatarren «laguna» dela eta haren «ideia politikokoekin» bat egiten duela, nahiz eta bere eguneroko jardueran kontrako jarrerak izaten duen: bere poltsikoa loditu, herritarrak pobretzen dituen sistema ustelari eusten dion bitartean.

Nigeriako hego-mendebaldeko Osun estatuko agintariak laburtu dute afrikar askok pentsatzen dutena: «Mundua hobea da berari esker». "Premium Times" egunkariak argitaratu duen agiriak nabarmentzen du «kubatarren espiritu menderaezina». Kuba eta Nigeriaren arteko harremanak oso onak izan dira azken lau hamarkadetan eta horren eraginez Olusegun Obasanjo presidente ohiak lau aldiz bisitatu zuen Karibeko uharteak.

Abdel-Hakim Gamal Abdel-Nasser (Nasser Egiptoko estaturu zenaren semea) politikariak nabarmendu du Kubako herriaren borondateak garaitu dituela «indar maltzurak, nahiz eta indar horiek potentzia erraldoi baten babesa izan».

**Mandela: «Arrazismoa ezabatzeko Kubaren konpromisoak ez du parekorik. Kubarekin dugun zorra itzela da. Beste zeinek erakuts dezake horrelako jarrera Afrikarekiko?»**

**Kubako Gobernuak 300.000 soldadu bidali zituen Angolara 1975 eta 1988 bitartean, Hegoafrikako indar arrazisten erasoaldi bortitzari aurre egiteko**





**Unai Fernandez de Betoño - @UnaiFdB**  
Arkitektoa

## Hiriburuetako arnasmugak

arkitektura / hezkuntza / komunikazioa

**U**daleri euskaldunenak biztanle gutxiokoak dira oro har, salbuespen interesgarri batzuk alde batera utzita: Bergara, Bermeo, Arrasate, Azpeitia, Gernika, Hondarribia, Tolosa, Zarautz. Euskaldun-dentsitate baxuagokoak izan arren, ordea, Euskal Herriko hiriburuak ere funtsezkoak dira geure hizkuntzaren biziberritze-prozesuan, hiztun gehienak bertan bizi direlako, garelako: Baionan, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean euskaldunok arnasmugak geografikoetan baino sakabanatuago bizi arren, kopuruari dagokionez askoz gehiago gara. Horregatik da hain garrantzitsu hiriburuetako euskaldunen sakabanaketa espazial horren aurka lan egitea, baita hirigintzaren alorretik ere.

Testuinguru horretan ageri zaigu arnasmugak soziofuntzionalen kontzeptua, besteak beste Kontseiluak landutakoa. Euskara nagusi diren espazioak ditugu arnasmugak soziofuntzionalak, gizartearen funtzio jakin batekin lotura zuzena dutenak (hezkuntza, aisia, kirola...), non euskaldunen dentsitatea altua den, eta, ondorioz, euskaraz naturaltasunez egin daitekeen. Esan izan da ideia hori ez dela nahasi behar arnasmugak geografikoen kontzeptuarekin, baina, egia esan, arnasmugak soziofuntzionalak ere euskarri fisiko bat behar dute, leku zehatz batean garatu behar direnez. Eta, horren ondorioz, hirigintza-antolakuntzaren xede ere badira euskararen arnasmugak soziofuntzionalok. Haiantzako espazio fisikoak babestu, kudeatu eta antolatu behar direlako.

UEMAren definizioari jarraituz udaleri euskalduna izatera ailegatzeko ez den Andoainen, kasu, ideia horren adibide bi-

kain bat dago: Martin Ugalde parkea, euskalgintzako enpresa garrantzitsu askoren egoitza; alegia, euskararen I+G+B delakoaren «bikaintasun-polo» argi bat.

Hala izanda, zergatik ez da aintzat hartu, adibidez, Donostialdeko Lurralde Plan Partzialean? Beste sektore batzuekin (ohiko industria produktiboa, logistika, teknologia) egin egiten da, haien sustapen aktiboa eraginez. Tokiko hizkuntzaren industria ere urbanistikoki indartu beharko litzateke.

**Dezente erdalduna den Gasteiz batean, hiriburu handiago bat hartzearen, badago adiera geografiko zehatza duen arnasmugak soziofuntzional bat, egituraketa urbanistikoki handiagoa beharko lukeena. Aiztogile kalea, Aihotz plaza, Oihaneder Euskararen Etxea, «Alea» aste-kariaren egoitza, gaztetxea, Auzolana pilotalekua eta Hala Bedi irratien egoitza, Gasteizko euskara-humusaren osagai funtsezkoak dira.**

Hirigintza-ordenantzetatik erabilera batzuk mugatzen dira, eta beste batzuk sustatu, beraz, zergatik ez da euskara normalizatzeko ekimen urbanistikorik aurrera eramaten? Esandako arnasmugak soziofuntzionala leku egokia litzateke, esaterako, Bai Euskarari ziurtagiria ateratzeko konpromisoa hartzen duten komertzioen ezartzeari lehentasuna emateko; edota Kafe Antzoki berria kokatzeko.

Hirigintza berrikuntza soziala eta lurralde-garapena bultzatzen saiatzen da. Euskararena ere esparru estrategikotzat jo beharko litzateke asmo horretan. Baita hiriburuetan ere. •

3 BEGIRADA:



Ilustrazioa: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO



{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

# Ez da ezer gertatzen; bihar garai oso bat gertatuko da

Lankideari joan natzaio larri antzean asteko gertakari baten eske, letrok juntatu behar nituela eta puntua behar nuela azterketa osatzen has-teko. «Hemen ez duk ezer gertatzen, motel!» erantzun dit, desesperazio kutsu batekin, dena dagoela geldi, urak bere bidean joateari uko izan balio bezala. Pentsakor utzi nau, neure buruari ezer ez bada gertatzen zeozer gertatzen ari ote den galdetuz.

Euskal Herriko politikan ez omen da nabarmentzekoa den deus berririk gertatzen. Omen, dena datza zegoen to-kian, Evaristo handiak kantatuko lukeen bezala, dena doa joan behar den bezala. Dena? Ezer ez denean gerta-tzen, zer gertatzen da? Politikaren aurrean, euskaldunek, itxuraz ezer gertatzen ez den fartsa formal bat harri eginda ikustera mugatu behar al dute?

Ez. Clint Eastwoodek jokutzen zuen *Harry Zikina* ins-pektoreak esaten zuenarekin akordatu naiz: iritzia ipur-tzuloa bezalakoa da, denek daukate bat eta berea. Igualtsu gertatzen da estratégiare-kin. Badira bizpahiru dituz-tenak ere, hainbeste aukerekin galtzen direnak. Guztien artean estrategia ba-ti lotuko natzaio, «hemen ezer ez da gertatzen» estrate-giarekin, hain zuzen.

Estrategia hori darabilte-nek Euskal Herria oasi bat dela diote, hegoaldeko auzo-lagunekin alderatuz gero, he-men gloria betean bizi gare-la. Gero, Europatik etorritako

PISA txostenak erakutsi legez, irakaskuntzan adibidez «gutxiegi» kalifikazioa dugu. Ez gaude, ez, etxafuegoak botatzeko egoeran. Igual du, baina, zerbitzuek, ekono-miak, egonkortasun politikoak... denak duelako hemen kalitate ziurtagiria. Oasiaren ekosistema horretan, iraga-naren funtzioa orainean errepikatzea omen da: Ardanza-ren eskola, Sancristobal eta Elgorriaga gobernadore zibi-lak euskal militanteak ehizatzen GAL taldean leporaino sartuta zeudenean haien nagusi Ramon Jauregi lehenda-kariorde egin zuen eskola, doktrina politikoa da egun. Patxi Lopezen gobernuan zeuden batzuk Urkulluren go-bernuan daude orain. Espainiako medioek txalotu egiten dute «pinto, pinto, ekarzu pilota txikia» maskota otza-naren jokabidea, Kataluniako «deribaren» aurrean bide bakarra dela goraiapatuz. Eta, jakina, hainbeste txalo arte-an, PPekin harremanak desizozten dira, aurrekontuak

negoziatu eta negoziarentzat milioi batzuetako kutxa egiteko aukera dago. Inora ez doan eta inorekin lotuko ez gaituen abiadura handiko tren mamutzar horrentzat, za-borrak industrialki erretzeko edo Auzitegi Konstituzio-nalean den errekurtsoren bat edo beste erretiratzeke.

Horretan dabilta. Hori da maila. Eta lankidearen «he-men ez duk ezer gertatzen» horren harian, aberkide as-ko-k berea duten arrangura naturala da oso: hori bada he-mengo «oasiaren» maila politikoa, arazoa, sentzilloki, maila politikorik ez dagoela da. Eta, bitartean, nahiko lu-kete euskal gizartean honako sentipena hedatzea: deter-minismo politiko (eta teknologiko) betean bizi gara eta horren aurrean ezin da ezer egin, babestea besterik ez da gelditzen, salba dadila ahal duena.

Oasiaren teorema politiko horri aurre egin behar zaio, pertsonalki eta kolektiboki. Nola? Lehenik iritzia sortuz, aldaketak proiektatuz, aukerak landuz. Euskal politika-

«Euskal Herrian ezer ez da gertatzen».  
Normaltasun hori nork erabaki du? Gauza bat da baldintzapen latz eta erresistentzia indartsuak egotea, eta, beste bat, determinismo konformista eta otzana

ren praxian ez dago, jarrera mailan eta psikologia kolek-tiboan ez luke egon beharko, teoriarik posible izan eta pra-xian ezinezko den ezer. Zergatik izango da saihestezina «Euskal Herrian ezer ez da gertatzen» dioen normalta-sun hori? Nork erabaki du? Zeinen izenean? Gauza bat baita baldintzapen latzak eta erresistentzia indartsuak egotea, eta, beste bat, determinismo konformista eta otzana. Bai, badirudi oasiaren oraingo ordena oso ongi antolaturiko desordena dela, eta, batez ere, sozialki oso barneratuta dagoela. Baina ez du zertan hala izan behar. Dialektika positibo bat behar dugu. Adierazten duen, eta ez ezkututzen duen, hizkuntza politikoa. Soluzioek Eus-kal Herrian segitzen dute, euskal herritarren esku. Baina nork esan du politika erraza dela? Eta lasai, Leninek as-paldi esan legez, badira ezer gertatzen ez den hamarka-dak eta badira hamarkadak gertatzen diren asteak. •



# EUSKAL BALEAZALEAK

## Bizitza arriskatuz, Euskal Herrira aberastasuna ekarri zuten marinelek

**A**lbaolan zaharberritzen ari diren “San Joan” baleontzia euskal historia berpizteko pauso bat da. Ondo daki hori Jose Antonio Azpiazu historialariak. Legazpiarra da jaiotzez, baina Oñatira joan zen txikitari. Bertan hitz egin genuen beretzat «droga bat bezalakoa» den gaiari buruz: euskal baleazaleak.


Julio Caro Barojak zuzendutako tesia eta ordutik ez du burua «paper zaharretatik» altxatu. Bere bizitza osoa dokumentuei begira eman du, marinel haien historiaren puzzlea osatuz. “Hielos y oceanos. Vascos por el mundo” liburua argitaratu berri du marinel haiek egindako bidaia arriskutsuen inguruan, baina aurretik ere gai berbera jorratu zuen “Y los vascos se echaron al mar” liburuan. Oraingoan urrutiko lurraldeetara jarri da begira. Lehenengo ozeanoak aipatzen ditu, marinelek egindako bidaiei erreferentzia eginez. Ondoren izotzak dituzten Ternuan, Islandian edo Norvegiar bizitako abenturen berri ematerakoan. Liburuaren azken partean, ordea, duela 70 urte bakailao bila joan ziren oñatiarrak ekartzen ditu gogora, haietako baten semearekin hitz eginez.

Egun, Azpiazu euskal arrantzaleei buruz gehien dakien pertsonetako bat dela esan dezakegu, baina gaiarekin hasi zenean ez zebilen itsaso bila. Itsasoak bera aurkitu zuen. «Dokumentazioa beti agertzen zitzaidan itsasora begira, nahiz eta barnealdeko herrietakoa izan. Hemengo bizimodua baserria zen, baina baserriak ez zuten gehiegi ematen. Mehatzeetatik burdina ateratzen zuten eta hori Zumaiara eramaten zuten, eta handik Sevillara eta gero Ameriketara. Itsasoa beti agertzen zen. Eta itsas bazterrean bizi zirenen kasuan, are gehiago. Normalean arrantza, garraioa, kortsarioak, piratak... hor ibiltzen ziren. Itsasoa zen bizimodu normala», nabarmentzen du.

Legazpin burdinolen inguruko ikerketa bat egin zuen “Eus-

**HISTORIA** / Nagore Belastegi Martin

Arrantza ez zen kostaldeko biztanleen kontua soilik. Euskal Herri osoarentzat zen garrantzitsua itsasoko lana. Batzuek burdina edo baserriko produktuak lortzen zituzten, ostean arrainengatik trukatzeko. Baina, horrez gain, diru usainari jarraituz urruneko uretan murgildu ziren barnealdeko herrietako marinel ugari ere izan ziren.



1583. urteko Bizkaiko golkoko karta nautikoa. UNTZI MUSEOAREN BILDUMA

kal burdinoletako bizimodua—La vida en las ferrerías vascas” liburua idazteko, eta orduan konturatu zen burdina trukerako material bezala erabiltzen zutela. Herri aberatsetan saltzen zuten —Frantziara, Sevillara edo Gaztelara— eta ardoa, garia eta bestelakoak ekartzen zituzten. Batzuetan arraina ere lortzen zuten. Horregatik dio adituak Euskal Herriko historia itsasora lotuta egon dela beti.

Etekin handiena, noski, itsaso ondoan bizi zirenek ateratzen zuten. «Hondartza asmakizun moderno bat da —dio historialariak—. Lehen hondartza hareatzak ziren, itsasontziak egiteko

tokia, emakumeek arropa garbitzeko tokia, bakailaoa, bale olioia eta arrantzaleen tresneria gordetzeko txabolak zeuden tokia. Baina guk ezagutzen dugun hondartza XIX. mendeko bigarren zatian asmatutako zerbait da. Lehen hondartza lantokia zen, ez aisialdirako tokia».

Itsasoarekin hain harreman estua izanik, negozioa azkar ikusi zuten. Dirua egiteko aukera aparta zen leku arrotzetara joatea eta bertan baleak arrantzatzea, itzultzean lortutakoa saltzeko. Hala, aitzindariak izan ziren Ternua aldera joaten. Euskaldunak oso ausartak ziren, nahiz eta baldintza oso eskase-

tan lan egin. Ontzi onak eta eskarmentudun marinelek zituzten. Beraiek arrantzatutako bakailaoa Europa osoan zabaltzen zuten, eta balea olioia Frantziar saltzen zuten, bertatik Ingalaterrara bidaltzeko.

### BELDURRIK EZ

Arrantzaleek bazekiten zer-nolako arriskuak igaro beharko zituzten. Euskal Herriatik ateratzen askok testamentua egiten zuten. Historialariak kontatu bezala, XVII. mendeko poesietan biltzen da Larrun mendia ikusten zutenean, Euskal Herri ikusten zuten azken puntua, agur egiten ziotela. «Ez ziren abenturazale eroak. Bazekiten non sartzen ziren, Atlantikoa zeharkatzeak zer arrisku zituen bazekiten». Horregatik alde aurretik egiten zuten testamentua. Bertan zorrak ere jasotzen zituzten, kapitainak olio kupele bat zor bazieten, adibidez.

Finean, denbora luzea ematen zuten etxetik kanpo. Bidaian hilabete baino gehiago ematen zuten joaterakoan eta beste hainbeste itzultzerakoan, eta han beste lau hilabete ematen zituzten. Guztira, sei edo zazpi hilabete egiten zituzten itsasoan. Batzuetan gertatzen zen, 1576ko neguan bezala, portua izozten zela eta ezin zutela barkua atera. Orduan negua bertan igaro behar izaten zuten.

Batzuetan, gainera, intentzio horrekin abiatzen ziren Ternura. Neguak oso gogorrak zirela jakin arren (30 gradu zero azpitik), ez zitzairen inporta negua bertan pasatzea baldin eta baleak berandu iristen baziren.

Euren bidaietarako sagardoa eramaten zuten, arrazoi praktikoenegatik: ura kupeletan usteldu egiten zen eta ardoa garestia zen. Gerora jakin dugu hori zela euskaldunen sekretua gainontzeko marinelek baino gutxiago gaixotzeko. Dirudienez sagarrak duen C bitamina mesedegarria zen eskorbutoaren kontra. Gai-nontzekoek jakin izan balute!

Astigarraga inguruan sagasti pila bat zeuden eta horietatik sagardo pila bat lortzen zuten. Kontsumo propiorako, noski, baina asko eta asko marinelek



## Lehen hondartza lantokia zen, ez aisialdirako tokia. Guk gaur egun ezagutzen dugun hondartza XIX. mendeko bigarren zatian asmatutako zerbait da

eraman zezaten. «Pentsa, ehun lagunek sei hilabeterako zenbat edari behar zuten?», nabarmen-tzen du Azpiazuk. Horrez gain, ahal bazuten fruitu freskoak eramaten zituzten, lehenengo asteetarako. Arrainak bidean harrapatzen zituzten eta bertan bakailaoa jaten zuten.

Euren bizimodua ez zen bate-re erraza. Ia egun guztia lanean ematen zuten, zenbat eta lehenago amaitu etxera lehenago itzultzen zirelako. Balea harrapatzen zutenean itsas bazterre-ramaten zuten, edo batzuetan itsasontzira gerturatzen zuten. Olioa ontzian bertan edo itsasertzeko txaboletan urtzen zuten. Joanes Etxaniz Orioko euskal arrantzalearen testamenuan (Ipar Amerikako testu idatzirik zaharrena) kontatzen da nola 24 orduz egiten zuten lan. Lantokian bertan hartzen zuten atseden, kideek lanarekin jarraitzen zuten bitartean.


Lan gogorra zenez sasoiko jendea joaten zen Ternuara. «Medikuek diote XX. mendeko arrantzaleek baldintza txarrak jasaten zituztela: hankak eta eskuak izoztuta aritzen ziren, eskumurretako mina izaten zuten eta arrainen hezurrekin zauriak egiten zituzten. Imajinatu XVII. mendean nolako baldintzak izango zituzten!», nabarmen-tzen du adituak.

### INUITEN LAGUN ETA ETSAI

Bertako biztanleekin harremana izaten zuten halabeharrez, nahiz eta beti ez ziren ondo eramaten. Lurrotan inuitak bizi ziren, indigenak. Dokumentuetan gertakizun xebreak biltzen dira. Adibidez, Azpiazuk kontatu zigun euskaldunek “zer moduz?” galdetzen zutenean haiek “apaizak hobeto” erantzuten zutela, esanahia ezagutzen ez zuten arren.

Harreman horri esker ingelesek XIX. mendean lortu ez zutena lortu zuten: baldintza gogor haietara moldatzea. Euskaldunek XVII. mende hasieran itsas txakur azalak ekartzen zituzten, inuitei ikusi ondoren ikasita. Haiekin Ternuara joateko botak egiteko eskatzen zizkieten zapa-tariei. Ingelesek, ordea, ez zieten

## Guztira sei edo zazpi hilabete ematen zituzten Euskal Herritik kanpo arrantzan. Batzuetan gertatzen zen, 1576ko neguan bezala, portua izozten zela eta ezin zutela barkua atera



Euskal baleazaleen ondarea ondo baino hobeto ezagutzen du Jose Antonio Azpiazu historialariak. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS


kasurik egin, eta, Azpiazuren us-tez, horregatik hil ziren hainbeste.

Liskarrak ere izaten ziren haien artean, noski. Euskaldunek egurra behar zuten olio kupelak egiteko, eta horretarako zuhaitzak mozten zituzten. Gainera, ehizan ateratzen ziren. Inuitak ere ehiztariak ziren, eta, lehia bazuten, haientzako animalia gutxiago gelditzen ziren. Giroa baretzeko euskaldunek bale haragia ematen zieten inuitei. «Bertakoek ez zituzten baleak harrapatzen, munstro bezala ikusten zituzten. Islandian ere ez, ez zuten itsasoa menperatzen. Baleak zertarako balio zuen ere ez zekiten. Euskaldunek harrapatzen zituzten baleen zati batzuk ematen zizkieten, haragia jateko. Eta beraiek pozik, balea jateko zutelako eta gainera hemengo burdina ere eramaten zutelako», Azpiazuren arabera.

Egun, kanadarren eta euskaldunen arteko harremana ona da. Are gehiago, bien historia lotuta dagoela jakinik, elkarlanean aritzen dira; hemen dokumentuak ditugu eta han aztarnak. «Indusketetan aurkitu izan dira kupelen eraztunak eta kupel osoak, gantza urtzeko erabiltzen zituzten teilak, galdarak eta tresneria. 400 urtetan mantendu dira, nola da posible? «Bertako itsasoa oso hotza delako. Hemen usteldu egingo ziren. Albaola elkarte berritzen ari den baleontzia ia osorik aurkitu zuten, hezurdura guztia ur hotzetan zegoelako. Oñatiko Unibertsitateko dokumentazioan aurkitu zuten itsasontzia halako tokian hondoratu zela, eta han aurkitu zuten», azaldu du.

Baldintza horiek tarteko, Azpiazuk uste du ontzi gehiago izango direla itsasoan, baita egiten ari diren indusketei esker aztarna gehiago aurkituko dituztela ere. Euskal kulturarentzako aberastasun izugarria da eta bertako museoekin akordioak lantzen ari dira. Baina duela ez hainbeste Kanadak ez zekien gauza handirik euskaldunei buruz. «1992an Sevillako Erakusketan Unibertsala egin zenean oroitzen naiz Kanadako pabiloian





bazeudela euskaldunekin zerikusia zuten gauzak, baina ez zekiten ezer euskaldunei buruz. Gero Selma Barkham bezalako adituen bidez euskaldunen indarra piztu da han. Honek Ternuako historia azalarazi zuen; Ternuako histori ofizialak 200 urte ditu asko jota, baina euskaldunek Kanadan egindako historia orain dela 500 urtekoa da eta aztarnak han daude. Gaur egun euskaldunekiko ikuspegia aldatu da, positiboki. Hango museoan indusketa pila bat egin dituzte, baita dokumentazio lana ere gure ekarpenean oinarrituta. Kanadako lehenengo dokumentuak euskaldunenak dira», azaldu du Azpiazuk.

Ternuarekiko harremana eten egin zen 200 urtez, gutxi gorabehera, baleazaleen gainbehera etorri zenean. Baina XX. mendean euskal arrantzaleak bakailao bila abiatu ziren berriro ur hotz haietara. «Nik ezagutu ditut hiru oñatiar Ternuara eta Groenlandiara joaten, eta bi bizi dira

oraindik», kontatu du adituak, barnealdeko herrietan ere marinelak izan direla azpimarratzeko. Izan ere, euskal marinel ospetsueneraiko bat oñatiarra zen. «Lope Agirreren inguruan gezur asko daude. Erregearen kontra oldartu zen eta hori ez zioten barkatu: garaiko idazle guztiak bere kontra jarri ziren. Erregearen kontra egiteak garai hartako bekaturik handiena zen. Bera baino askoz maltzurragoak izan ziren ospetsu egin ziren konkistatzaile asko: Zumarragako Miguel Lopez de Legazpi, Filipinetan ibili zena, adibidez. Urdaneta, behar bada garai hartako marinelik famatuena, Ordiziakoa zen. Elgoibarrek ondoan Altzola dauka, ibaiko portua, eta, horregatik, Elgoibarko kapitainak ere oso famatuak izan ziren garai batean. Arrantzaz, merkataritzaz, garraiogintzaz, borrokan... bizi ziren. Oro har, marinel euskaldunak oso ezagunak ziren», nabarmentzen du Azpiazuk.

Baleazaleak izotz artean, Duhamel du Monceau itsas ingeniari frantziarraren «Traité Général des Pesches» lanaren ilustrazioan. Alboan, euskal marinelak balea harrapatzen, Guillermo Gonzalez de Aledoren 1992ko akuarela batean. UNTZI MUSEOAREN BILDUMA

**Dokumentuetan gertakizun xelebreak biltzen dira. Euskaldunek «zer moduz?» galdetzen zutenean, adibidez, inuitek «apaizak hobeto» erantzuten zuten, esanahia jakin ez arren**

**Kupel bakoitzak langile baten hiruhilabeteko soldata balio zezakeen (6-12 dukat artean). Horrenbestez, arrantzale bakoitzak bost kupel lortzen bazituen, dirutza handia irabazten zuen**

Esan bezala, euskaldunak aitzindariak izan ziren Ternua bezalako lurraldeetan, inor baino lehenago iritsi zirelako bertara arrantzaz aritzera. XV. mendean oso indartsuak izan ziren lurrotan, baina XVI. mendean gainbehera etortzen hasi zen. Ingalaterrak inperio izugarria osatu zuen eta euskaldunek Ipar Amerikako euren lurrak konkistatu ote zituzten beldur ziren, beraz, euren indarrak baliatu ziren. Pasaiara joaten ziren eta bertan zeuden ontziak bahitzen zituzten eta marinelak eurentzat lan egitera behartzen zituzten. Erregeak esaten zien ordainduko zela, baina «erregea ordaintzaile txarra zen». Hori ikusirik, ontzigintzan aritzen zirenek nahiago zuten ontzi txikiagoak egitea, erregeak eraman ez zitzen.

Ontzi handiak 500 eta 700 tona artekoak izan ohi ziren, eta, txikiak, aldiz, 100 eta 150 tona artekoak. Ingalaterrako erregearekin bat egiten zutenek ontzi handiak eramaten zituzten, eta txikiak ez zuten ezer egiterik horien aurka.

Baina euskaldunek lanean jarraitu zuten, eragozpenak egon arren. Orduan hasi ziren beste leku batzuk esploratzen: Norvegia, Groenlandia, Danimarka, Islandia... Azken herrialde horretan, hain zuzen ere, euskaldun talde bat sarraskitu zuten XVII. mendean. Martin de Villafranca eta bere tripulazio osoa hil egin zituzten 1615ean, bertakoekin liskarrak izan ondoren. Martin de Villafranca bera marinel

haiek zeramaten bizimoduaren eredu izan zen. 15-16 urterekin jada Ternuan izandakoa zen eta 26-27 urterekin kapitaina zen. Mutikoak 12 urterekin hasi zitezkeen barkuan lanean itsasmutil bezala. Ondoren paje eta marinel izaten ziren, eta, azkenik, batzuek kargua hartzen zuten. «Horrela gogortzen ziren, derri gorrez», nabarmendu du Azpiazuk.

#### **BALEA, TXERRIA BEZALA**

Baletik, txerritik bezala, dena aprobetxatzen zuten. Gehiena grasa zen eta horrekin olio egiten zuten. Mingainetik ere olio ateratzen zuten, baina beste mota batekoa. Hezurdura erai-kuntzetan erabiltzen zuten. Ahoko bizarrak luxuzko labanaren kirtenak egiteko, emakume arropak egiteko (azpikogona eta kortseak) edota aberatsen guardolak egiteko balio zuen. «Garai hartako plastikoa zen; malgu eta iraunkorra», azaldu du historialariak. Frantsesek batez ere bizarrak eskatzen zizkieten euskaldunei, eta horregatik denbora ematen zuten bizarrak kentzen –hortzak kentzea bezalakoa zen–. Horri esker etekin handiak atera zituzten, baina olioaren zientzia.

Kupel bakoitza 6-12 dukatetan saltzen zuten. Langile baten hiru hilabeteko soldata 12 dukat izan ohi zen, beraz, arrantzale bakoitzak bost kupel lortzen bazituen, dirutza handia lortzen zuen. «Kapitainak are portzentaje handiagoa eramaten zuten. Itsasontzi batean 200.000 litro



olio ekartzen zituzten. Urtero 800-1.000 bale artean hiltzen zituzten, urte onetan. Baina gero baleak urritu egin ziren».


#### PAPER-SORTEN ARTEAN GALDUTA

Informazio hau guztia lortzea ez da erraza izan. Urte luzeetako lanaren emaitza da, eta oraindik paper artean jarraitzen du Azpiazuk. «Oñatiko artxiboan dokumentu asko daude: ontziak nola egiten zituzten, barruan zer sartu behar zen, marinelen kontratuak... Tolosan ere badago informazioa, baina itsaso bazterretako ia negozio guztien agiriak Oñatin daude. 16.000 paper-sorta inguru daude, larruz josiak, eta bakoitzean 300 kontratu. Irakurtzen duzu batek astoa saldu zuela, besteak ez zuela ordaindu... Agiri batean oñatiar batek Ternuako negozioan sartuta Debako batekin egindako hitzarmena aurkitu nuen. Dokumentazio pila bat dago», dio liluraturik.

Valladolidera ere jo izan du informazio eske: «Lehen maila-

ko epaileak alkateak ziren. Bere epaiarekin ados zeudenak korrejidorearengana joaten ziren. Eta korrejidorearekin ere ados ez bazeuden, Valladolidera joaten zuten. Aurreko batean dokumentazio baten bila nembilen eta bost paper-sorta atera zizkidaten. Zer nahi duzun eskatzen diozu eta disko batean bidaltzen dizute, formatu digitalean. Duela gutxi 400 fotokopia inguru iritsi zitzaizkidan», azaldu du.

Bere pasioa ezaguna da eta, horregatik, ingurukoek ere lagundu egiten diote. Bere suhiaren aita argentinarra da eta bertatik liburu batzuk bidali zizkion Irizar almiranteari buruzkoak. «Bitxia da, 1850ean bertara joandako oñatiar baten semea itsas munduan sartu eta teniente bihurtu zen; bada, han galduta zeuden norvegiarrak erreskatatu zituen izotza hausteko itsasontzi batekin. 1903an munduko prentsak hori islatu zuen. Orain duten izotz-hauslea "Almirante Irizar" deitzen da, haren omenez», amaitu zuen.



Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

## Niraultza

### Mirari Martiarena

**E**z da behar hainbeste urte, egun haxe dago bizitzeko», dio Gosereren "Eguna" kantuak. Joseba Sarrionandiak idatzitako hitzek eta Ines Osinagaren ahotsak gogorarazi didate abenduan urteak betetzen ditudala. 30 urte aurten, eta ez, ez dut zahartzen ari naitzelako inolako lotsarik edo konplexurik.

Anariren "Agur Jesusen Ama" abestiaren bertsio instrumentala entzuteak gogorarazi dit bizirik nagoela. Elizako abesti ezaguna, azken zortzi urteetan bi aldiz entzun dut eta hirugarrenez entzuteak gogorarazi dit ze min sentitu nuen bi lehengusuen hiletetan. 30 urte egin baino lehenago hil ziren, eta, nik, eurak ez bezala, bizitzeko zortea dudala pentsatzen dut maiz. Horrelako kolpeetan ikasten

dugu egunean egunekoa bizi behar dugula, baina errutinak ahaztarazi egiten dugu. Dena biharko, dena etziko eta, askotan, dena beranduegi denerako uzten dugu.

30 urte bete ditut eta oraindik jakinarazpenik jaso ez dudan arren, badakit gazte txartela kenduko didatela. Baina nigan bada haur bat, Mirari txiki handi bat, gaxo dagoenean amaren magala eta mimoak eskatzen dituen, eta, sendatzen hasitakoan, manta lepoan lotu eta super heroiarena egiten ibili berri dena etxeko pasilloan. Inolako lotsarik sentitu gabe, zahartuz goazen heinean ahazten dugun haurrari lekua egin diot eta aske sentitu naiz. Iraultza txiki bat egin dut nire barruan: niraultza.

Oiartzungo elizako kanpaiak jotzen ikasten ari naiz (ez da txantxa). Erritmo batek "hor konpon" esaten du, eta, kanpaien bidez jotzen ikasi dudan arren, "hor konpon" hori barneratu nahian nabil. Barneratu, sentitu eta egunerokoan garrantzitsuak ez diren gauzei argi esan. Umetan egingo nukkeen bezala.

"Oroitu, itzartzean eguna bakarra dela eta ez dela halakorik sekula errepikatuko" jarraitu du Gosereren abestiak.

*Déjàvu*-ak izango ditugu, baina egunak errepikaezinak dira eta gure esku dago lotan dugun haurra itzartu eta niraultza txikiak egitea.

Ez al litzateke polita urtean behin beharrean, egunero bizi eta "zorionak guri" abestea? •





## **IKUSMIRA**

# MUGARRIAK HILARRI BIHUR EZ DAITEZEN

Hamabi mugarri, errepidea barik, bidegabekeriak dirauen denbora zedarritzen dutenak. Gehiegikeria handitu baino egiten ez duten hamabi urteotako mugarriak. Eta Karmele Solaguren, behingoz, zor zaion aitortena jasoko duen esperantza. Hamabi urte asko baitira. Baina ez da iraganeko kontua, bidegabekeriak ez baitu iraungitze datarik. Ez da iraganeko kontua oraindik ere, astero, Karmele hil zuen politika zital berak mugarri horiek zedarritzen duten errepide beretik igarotzera

Jagoba MANTEROLA eta Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

behartzen baititu milaka euskal herritar. Ez da iraganeko kontua, horregatik deitu dute aste honetan hainbat mobilizaziotara. Horregatik deitu dute, berriro ere, Bilbora, datorren urtarrilaren 14an, besteak beste, Karmele Solaguren hil zuen sakabanaketa euskal preso senide eta lagunentzat bezain eutsiezina egiteko, zenbat eta gehiagoren konpromisoak orduan eta eutsiezina goa egingo baitu. Orduan eta handiagoa bihurtuko baitu mugarriok euskal preso politikoen bisitarien hilarri bihur ez daitezen itzaropena. Xabier Izaga Gonzalez



# OPARIAK EROSTEN

## KONTSUMISTA KONPULSIBOAK



Ainara Azpiazu  
**AXPI**



## AUTOOPARIAK EGITEN DITUZTENAK



## ANTI-KONSUMISTAK



iRRITZIA: {



# MATERIAL BERRIEN BILBO

## Micol Costi, material berritzaileak bilatzeko «radar» baten buruan

📁 JENDARTEA / Nerea Goti

Bilbon egoitza duen Material Connexion enpresako kidea den Micol Costik munduan dauden material berritzaile eta jasangarrien kutxa zabaldu du orain gutxi hiriburu bizkaitarrean. «Radar» moduko bat da, zer material mota eta zer ezaugarriekin esan, eta bilaketa martxan jartzen du. Artxiboan, 7.000 material baino gehiago dituzte.

**F**ash Tech Conference izan zuen izenburu eta Bilbon ospatu zen aurreko astean. Jardunaldi berezia izan zen, industria-ko, bereziki moda arloko, teknologia berrien azken tendentziak, ekonomia digitala eta Internet bidezko erosketak jorratu zituen. Gaiok hizpide, mundu mailako adituak gonbidatu zituzten Azkuna Zentrora, besteak beste Micol Costi Bilbon bertan egoitza duen Material Connexion nazioarteko enpresako kidea.

Adigital elkarteak antolatutako hitzorduan, industriaren arlo guztietan dauden transformazio beharrak aztertu zituzten, bereziki moda munduan iraultza teknologikoak izandako inpaktua aztertuz. Arlo horretan, materialek eskaintzen dituzten aukera anitzak jarri zituen mahai gainean Costi italiarrak. Izan ere, Material Connexionen material berritzaile eta jasangarrien bilaketan aritzen da aditua. Enpresak materialak bilatu eta identifikatzen ditu eta horien erabileraren gaineko aholkularitza lanak ere eskaintzen ditu.

Bilbon bertan, 500 material ezberdin biltzen dituen «materioteka» bat dauka enpresak. «Material guztiak artxibatuta eta sailkatuta daude. Biltegia *on line* ere badago, baina Bilbon ehunka material horiek ikusi eta ukitu egin daitezke, Unai

Etxebarría Material Connexioneko Bilboko bulegoaren zuzendariak argitu zuenez. Laguntza eskaintzen dute ez bakarrik enpresa munduan, unibertsitatekin ere lan egiten baitute. Etxebarriak nabarmendu zuenez, «alde akademikoa» funtsezkoa da, jakintza hurbiltzea helburu baitute, «eta unibertsitateak hartzaile onak izaten dira».

«Materioteken sare batean gaude. Gurekin zazpi dira mundu osoan: Tokio, Bangkok, Milan, Suedia, Daewo eta New

York», aipatu zuen. Zehaztu zuenez, ez dira fabrikatzaileak, baizik eta «radar moduko bat». «Adi gaude sortzen den guztiari, egiten duguna da sailkatu, ordenatu eta gure erabiltzaileei eskaini», esan zuen.

### KONTSULTA ASKO ETA OSO ANITZAK

Diseinatzaileak, arkitektoak, ingeniariak, berrikuntza eta garapen departamentuak... dira Material Connexion enpresako bezero nagusiak. Adibide praktikoa bat jarrita, aipatu zuen edozein fabrikazio motarako egin daitezkeela kontsultak. Beraiek baldintza zehatz batzuk bete behar dituen material bat edo batzuk jartzen dituzte bezeroen esku. Aipatutako prozesu horietan, Micol Costi adituari bilaketan parte hartu eta bezeroari eskaintzen zaizkion materialak zergatik aukeratu diren azaltzea dagokio.

Micol Costik (Milan, 1977) materialen teknologiarara bideratutako produktuen gaineko zein moda diseinuko ikasketak ditu. «Materialen ikertzailea naiz eta aholkularitza lan egiten dut», azaldu zion GAUR8ri. Oso anitzak diren profesionalekin eta enprekin egiten du lan eta betebeharrak nagusi bat dauka: «be-







## MODAREN ARGAZKIAN, BERRIKUNTZA LEHEN PLANOAN

Modaren industriaren argazkian lehen planoan dago teknologia, eta gero eta ikusgarriagoa da hartzen ari den garrantzia. Horregatik, moda markak, diseinatzaileak eta teknologia firmetako ordezkariak bildu eta entzule izan zituen Bilboko hitzorduak, errealitate hori baieztatu eta dauden erronkak aztertzeke asmoz. Hala, hiru dimentsioko inprimagailuen erabilera, «omnikanalitatea» edo hazteari uzten ez dioten Internet bidezko erosketak aztertu ziren jardunaldian. Horrez gain, baina, Micol Costiren agerraldiak material berritzaileen erabileraren garrantzian sakondu zuen, propietate morfologiko oso txikiak dituzten nanomaterialek eskaintzen dituzten aukerak jorratuz.

Goi teknologiak kirol arroparen diseinuan gero eta paper handiagoa jokatu du, eta, eredu hori jarraituz, italiarrak nabarmendu zuen ikerketa prozesu ugari daudela mundu osoan abian jantzien errendimendua hobetzeko. Arlo horretan lantzen ari den ataletako bat lan berezietarako erabili beharreko jantziak garatzen datza. Esan zuenez, arropen isolamendua bermatzen duten ehunak ikertzen ari dira bereziki, eta horrek erabilgarritasun handia izango omen du osasuna eta segurtasuna bermatzeko. Jasangarritasuna bermatzea etorkizuneko beste erronketako bat da moda munduarentzat, oro har industria guztientzat den bezala. Bada, horretan ere ikerketa arloan «urrats handiak» egiten ari direla baieztatu zuen italiarrak.

zeroak zehaztutako proiektua gauzatzeko egokien den materiala identifikatzea».

Bilbon egin zuen agerraldian material jasangarri eta berritzaileez hitz egin zuen Costik, bereziki modaren industrian arreta jarrita. Azaldu zuenez, jantzi zehatz bat erabiltzera eramaten gaituen bultzada identifikatu behar da. «Ez da dirudien bezain azalekoa, askoz ere konplexuagoa da. Izan ere, jantzen dugun horrek zelakoak garen adierazten du eta erabiltzen ditugun jantziek eroso sentiarazten gaituzte», adierazi zuen.

### GAITASUN BEREZIDUN MATERIALAK

Modan izaten ari den garapenean paper izugarri garrantzitsua jokatu dute materialek, gaitasun bereziak dituztelako. Costik sentitu baina ikusi ezin ditugun nanomaterialek aipatu zituen jardunaldian, horiek «potentzialtasun ugariako soluzioak» eskaintzen dituztelako. «Soluzio horiek material zehatzak sortzeko erabiltzen dira, adibidez segurtasunaren inguruko diseinuak egiteko, edota lortu nahi den ukimen berezi bat lortzeko. Nanomaterialek badituzte material arruntek ez dituzten pro-

Micol Costi aditu italiarrak Fash Tech Conference jardunaldian parte hartu aurretik hitz egin zuen GAUR8rekin.  
Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

pietateak», aipatu zuen aditu italiarrak.

Nola diseinatzen dira materialak? «Ikerketa proiektuaren eta garapenaren arabera» da diseinu zehatz bat, azaldu zuenez, eta adibide bat jarri zuen: «Une honetan enpresa pilo batekin ditugu proiektuak barruko soluzioei begira, gainazalari ari dira lanean, eta badaude enpresa zehatz batzuk isolamendu berezia duten ehunekin lan egiten ari direnak». Ospitaletan segurtasun arloan ikerketa ugari egiten ari dira nanomaterialekin, eta eraikuntzan, autogintzan edota garraioan ere azterketa asko daude egun martxan.

Zazpi mila material baino gehiago pilatu ditu Material Connexionek. «Mundu osoan zehar jasotzen ditugu material ezberdinak eta irizpide ezberdinen arabera sailkatzen ditugu». Materialon konposizio kimikoa ere erabiltzen duten irizpideetako bat da eta polimeroak kategori horietako beste atal bat dira. Costik zehazten duenez, badituzte material naturalak, kristalak, metalak, zeramika edo ikatza oinarri dutenak...

Material Connexioneko arduradunek azaldutakoaren arabe-

ra, jasangarritasunarekin lotutako alderdi asko daude materialen munduan. «Ezinezkoa da material jasangarriena zein den zehaztea, baina era inteligente eta jasangarri asko daude materialak erabiltzeko. Batzuetan tokian tokiko materialak erabili ditzaiegu, baita birziklatutakoak ere», nabarmendu zuen.

Kasu batzuetan birziklapen prozesuak ur edota energia kontsumo handia suposatzen badu, prozesu horrek ez du balio berdina. Beste hausnarketa bat ere plazaratu zuen: egun ezin da material berriak sortzen dituen zentro bakar bat nabarmendu. Agerikoa da European eta AEBetan aurreratuago izan daitezkeela ikerketak, baina «nanosoluzio ugari daude munduan».

Kostu ekonomikoa da beste aldagai garrantzitsu bat. «Ezinezkoa da erantzun orokor bat ematea, kasu bakoitzean erabiltzeko den material zehatzaren eta horren kantitatearen arabera» da prezioa», esan zuen Costik, baina aipatu zuen enpresa asko material berriak garatzen hasi direla. «Lehenengo pausua grafenoa da, eta, bigarrena, prozesuak hobetzea eta merkatzea, kosteak txikitzea», esan zuen.



1,5€  
ZURE BIDAIA ALDIZKARIA  
EUSKARA HUTSEAN



**DAGOENKO**

**ZURE KIOSKOAN SALGAI**



BIDAIA ALDIZKARIA

# 7haizetara



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • [www.zazpihaizetara.com](http://www.zazpihaizetara.com)



**Arantxa Urbe**  
Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea



## Hezkuntza eskubidea lortzeko

**G**oian dut gure herriko horma batean palmondodun uharte koloretsu baten marrazki handia zegoela. Azpian, letra beltz lodiz, «Sin Cuba nada sería igual» zegoen idatzita. Artean ezer gutxi genekien Kubaz, baina aitortu behar dut marrazkiak eta esaldiak gure jakin-mina erakarri zutela.

Gaur, abenduaren 10a, Giza Eskubideen Eguna da, egun bakoitzak izena duen egutegian. Azaroaren 20a, berriz, Haurren Egun Unibertsala izan zen. Bertan jasotako oinarritzko eskubideen artean dago hezkuntzarako eskubidea.

Mundutarrok 2000n egindako Hezkuntzaren Gaineko Mundu Foroan erabaki genuen hezkuntza arloan hainbat erronka jarriko genizkiela geure buruei. Bertan, 2015erako sei helburu ezarri eta haiek lortzeko hainbat estrategia definitu ziren. Helburuen artean zegoen oinarritzko hezkuntza unibertsala lortzea dezentzat. Horren arabera, «2015aren aurretik, haur guztiek, eta batik bat egoera zailean daudenek, lehen mailako kalitate oneko hezkuntza doako eta derri-gorrezkorako sarbidea izan behar zuten eta ikasketok amai zitzaten bideak jarri behar ziren». Iaz egindako “Guztiantza-

ko Hezkuntza” jarraipen txostenaren arabera, 1999tik etapa horretako matrikulazioa %9 igo dela estimatu zen. Igoera nabarmena iruditu arren, 2012an ia 58 milioi haur matrikulatu gabe zeuden munduan. Beraz, hamabost urte ondoren, 164 herrialdeetako ordezkariak hartutako konpromisoa erdizka besterik ez da bete.

Kubari begira ipini garenez, esatea dogokigu aurten eskubideez ari zaizkigun bi data horien artean Fidel Castroren heriotza gertatu dela. Seguruena den nontzat ezaguna da Castro buru zuen taldeak 1959an Kuban egin zuen iraultza. Ezezagunagoa izango da, akaso, iraultza horrek hezkuntza arloan izan zituen ondorioak, eta iraultza horri eusteko hezkuntzak izan zuen berebiziko garrantzia. Iraultza hainbat hankaren gainean sendotu zen, eta horietako bat hezkuntza izan zen.

**Iraultzatik urtebetera, 1960ko irailean, Fidel Castrok Nazio Batuen Erakundearen aurrean egin zuen agerpen publikoan, munduari iragarri zion urtebetean ezabatuko zuela Kuban analfabetismoa. Esatetik egitera pasa zen.** Hurrengo urteari “Hezkuntzaren Urtea” deitu zioten, herrialdeko bazter

guztietara Alfabetatze Kanpaina Nazionala zabaldu zutelako. Urte hartan lelo batek mugitu zituen kubatar guztiak: “Baldin badakizu: irakatsi. Ez badakizu: ikasi”.

Sei hilabete geroago, 1961eko ekainaren 6an, Hezkuntzaren Nazionalizazio Legea agindu zuen Gobernuak. Lege horren bidez, betiko utzi zen ordura arteko hezkuntza sistema eta benetako izaera demokratikoa ahalbideratu zen hezkuntzarako.

Castrok, Alfabetatze Kanpainan aritu ziren milaka brigadistekin eta hezitzaileekin bildurik, Kuba “Analfabetismoetik lurralde askea” zela aitortzen zuen bandera jaso zuen. Hori, 1961eko abenduaren 22an izan zen, eta ordutik egun hori Hezitzailearen Eguna da Kuban.

Ahalegin eta konbentzimendu horrek guztiak ahalbidetu du Kuba hezkuntzan aitzindariak diren herrialdeen artean egotea eta garabidean diren herrialde askotan analfabetismoa desagertzeko laguntzaile paregabea izatea.

**Beraz, eta «hirugarren mundua» deitutako herrialde horien taldean egon arren, ez dezagun ahaztu: historian lehen aldiz aldarrikatu zen Kuban, eta bete zen, hezkuntza denen eskubidea eta betebeharra dela, doakoa eta pribilegiarik gabea.** Fidel Castroren argia amatatu den ia egun bertsuetan Karibeko uharte hartatik bertatik Joseba Sarrionandiak egin digu kuku. Urte luzeetan bizi omen da bertan. Orain, Habanako Unibertsitatean irakasle da.

Sarrionandiak honela definitu zuen ESKUBIDEA “Hitzen ondoeza” bere lanean: «Giza eskubideen erreklamazioa paradoxikoa izan daiteke giza eskubidez gabetua bizi den jendearentzat. Esate baterako, ‘ogia’ eskatzen duen afrikar beltzoak, ogi zati konkretu bat behar du ahora sartzeko. Giza eskubide zale batzuek, oster, ogia eman beharrean, ‘ogia jateko eskubidea’ da ematen diotena. ‘Indarra duenak eskubidea’ da erre-fraua. Baina, indarrak ez duenari ‘esku-bide’ deituz gero, indarra duenari ‘oinbide’ deitu beharko litzaioke».

Eta gure oroitzapenetara bueltatuz, zentzua hartzen ari gara aspaldiko “Sin Cuba nada sería igual” hari. •

arkitektura / hezkuntza / komunikazioa

3 BEGIRADA:



Kuba, Hezkuntzan aitzindaria. Fidel Castrori omenaldia, Donostian. Jon Urbe | ARGAZKI PRESS



# «Nerabezaroaren aurretik beste era batera joka dezakegu musika eskoletan, haurrak musikara lotzeko»

**T**rikitia osasuntsu dago dituen ikasle kopuruari begiratzeko badiogu. Musika eskoletan instrumentu izarra bihurtuta dabil azken urteotan. Ikasleen grinari begiratuta, ordea, panorama bestelakoa da. Halaxe jaso du Trikitixa Elkarteak irakasleei galdetuta. Ikasle multzo handi horretan gutxi batzuek baino ez dute ilusioa eta gogoia.

Musika eskoletan urteak eman ondoren, eliteko ikasketei begira bidea egin ondoren, musikarekin ezin adiskidetu dabilzanen historia ez da berria. Horrekin kezkatuta osatu du Joseba Tapiak "Larreko eskolatik. Trikitixarekin gozatzeko apunteak" izeneko liburua.

Larreko eskolaren aldarrikapena egiten du Tapiak liburuan; herriko musika, garajekoa, belarritik lantzen dena... solfeotik eta partituretatik kanpo, musika ibili badabilelako.

**Liburuaren atzean kezka bat sumatzen da, hausnarketa bat. Diozunez, ez zenuke nahi «trikitixak tristura sortzea».**

Askotan entzun izan dugu, eta ez Euskal Herrian bakarrik, urteetan musika ikasten aritu eta gero kasik era traumatikoan musika utzi dutenen kasua. Askok diote, gainera, 15 urterekin musika utzi eta 30 urte edo gehiagorekin berreskuratu zutela, ez dakit zein talde deskubritu zutelako. Hau oso ohikoa da eta kezka hor zegoen.

Eta horri erantsi behar diogu duela lauzpabost urte Trikitixa Elkarteak galdeketa txiki bat egin zuela trikitixa irakasleen artean, egoera zertan zen ikusteko. Irakasleek kexu handia agertu zuten; gehienek ez dute ikasten, eskolaz kanpoko jarduera gehiegi dituzte, gurasoek ez dute behar bezalako ardurarik jartzeko, haurrak musika eskoletan uzten dituzte kalean ibil ez daitezeko, haurtzaindegiak dirudite...

Igartzen zen irakasleak amore emanda bezala zeudela; ikasteko grina zuten ikasle gutxi horiekin lanean eta besteekin

amore emanda. Liburua hor hasi zen mamitzen: Zergatik ez dugu zer edo zer egiten irakasleei laguntzeko? Eta kezka horretatik irakasleekin bilerak antolatzen hasi ginen. Musika eskolatiko trikitixa irakasleak etortzen zaizkit eta liburuan jasotzen ditudan gogoetak praktikara eramaten saiatzen gara. Eztabaidak izan ditugu, hausnarketak, ideia berriak frogatu ditugu... horren guztiaren ondorio da liburu hau, elkarlan baten ondorio.

**Ikasle kopurua ez da arazoa. Liburuan diozunez trikitia «euskaltasun modernoaren zati» bihurtu da, eta «ikasi beharrendu sukarraldia» bizi du.**

Bai, trikitixa modan dago, gure garaian ez bezala. Nik trikitixa ezagutu nuenean nekazari guztiak bakarrik izaten zen. Gogoratzen naiz hamazazpi bat urte nituela nola joan ginen Lasarteko dantza taldearekin Donostiara kalejira trikitixa joaz eta jendeak arraro begiratzen zigun. Aldiz, gure festa guztiak herri txikietan antolatzen ziren eta horietan estimazio handia zuen trikitilariak, maite gintuzten eta jarraitzen zituzten gure jardunak. Gero, bide interesgarria hartu zuen; kalera bidean jarri zen, errekonozimendua gazteen artean, musika talde modernoetan. Gaztetxeetan sartzen hasi zen, rock taldeetan... Uste dut Oskorri, Hertzainak... aitzindariak izan zirela, beren musiketan trikitixa sartzen hasi zirelako. Baina pixkanaka folklorizazio bidea hartu zuen eta baztertua izatetik beharrezko izatera pasatu zen, eta horretan segitzen duela esango nuke.

Gu nekazaritza guztiak bakarrik jotzetik diskoak grabatzera pasatu ginen. Gure diskoek arrakasta handia izan zuten, asko saldu ziren eta halako boom bat izan zen. Eta gure ondorengo belaunaldiek boom horretan jarraitu zuten, beharbada gu baino gehiago gainera. Baina hori ere aldatzen joan da, nahiz eta oraindik musika eskoletan trikitixa ikasle asko dagoen, gainbehera hasia dagoela esango nuke. Trikitixa eskolek halere

---

**JOSEBA TAPIA**

MUSIKARIA

---

Bere bizipen pertsonaletatik abiatuta idatzi du «Larreko eskolatik. Trikitixarekin gozatzeko apunteak» liburua. Eta horixe da lanaren erronka, musikaz gozatzeko bideak zabaltzea, musika eskoletan inor gogaitu ez dadin.

amagoia.mujika@gaur8.info

gainbehera hori mantsuago sentitzen dutela iruditzen zait.

**Liburuan kontatzen duzu Negu Gorriak taldearekin Suitzara eta Alemaniara egindako bi-daia bat. Bertakoek harrituta begiratzen omen zintuzteten, «folklore atzerakoiaren ordezkariak» izango bazinete bezala.** Bai, halaxe izan zen. Haien begietara akordeoia mundu kontserbadorearen ikurra zen, eta Negu Gorriak baino lehen ohol-tzara agertzen ginenean akordeoia eta pandereta batekin harrituta geratzen ziren, ez zituzten bi estilo hain kontrajarriak elkarrekin lotzen. Euskal Herrian, aldiz, dagoeneko, rock taldeetan txertatua ageri zen. Baina urte batzuk geroago onarpen zabala goa izan zuen, identitate ikur bihurtzeraino. Eta pixkanaka folklore faltsu bateko jantzi

bihurtu zen. Euskal jai, eta sargardo ferietako ezinbesteko osagai. Hor hasi zuen malda behe-rako karrera.

**Euskaltasunaren ikur bihurtu izana karga bat al da trikitia-  
rentzat?**

Nire ustez bai. Horren bilakaera, gainera, gainbehera etorri da, beharbada gure egoeraren ispi-lu. Gu beste estatu batzuen barruan bizi gara eta askotan zaila izaten da gure identitatea azal-eratzeari. Horregatik, gero eta gehiago, estereotipoak sortzen ditugu; baserritarrez jantzen gara -nahiz eta baserritarrak ez horrela jantzi- eta trikitixarekin joaten gara diferentzia markatzeko. Hori gezurrezko irudi bat izanik, niri kalte egiten dit; etnografia gezurri horrek mina ematen dit, ez datorrelako bat bizi dugun errealitatearekin.

”

*«Gero eta gehiago estereotipoak sortzen ditugu; baserritarrez jantzi eta trikitixarekin joaten gara diferentzia markatzeko. Hori gezurrezko irudi bat izanik, niri kalte egiten dit»*

Nik trikitixa beste era batera ezagutu nuen; ia-ia fama txarrekoa zen, kanpotik etorria, garai-ko gizartean ez zen ondo ikusia, erdi ezkutuko dantzaldietan jotzen zen.... sekulako saltoa dago hortik gaur egunekora. Gaur egun ja ez daukagu dantzaldi ezkuturik, beste muturrera joan gara eta balizko euskaldunen erakustaldi horretan parte hartzen du trikitixak.

Ikusi izan ditut bertako produktuen publizitatea egiteko trikitilariak baserritarrez jantzi-ta kalejiran, eta horrek min handia ematen dit, gure saiakera guztiak beste norabide batekoak izan dira.

**Zuretzat trikitia zer izan da eta zer da?**


Nik ez dut trikitixa lotura horiekin ezagutu. Alderantziz, gure bi osabek aholku egin zieten nire

gurasoei ez nezala trikitixa ikasi, soinu handia ikas nezala, beste prestigio bat zuelako. Garai hartan bazen Donostian akademia oso sonatu eta moderno bat, Bikondoarena, eta han sartu ninduten. Niretzat trikitixa askapenerako tresna bat zen, nire belarri eta intuizioen agerpen bat. Eta nire mira guztia ere hor zegoen, segur aski nire osabak askotan ikusi nituelako soinua jotzen. Bikondoaren eskola horretan, baina, ez zuten musika herrikoia maite, eliterako prestatzen gintuzten eta oso lan konplikatuak jotzen genituen. Baita oso interesgarriak ere, geroa nik estilo hori maitatzen ikasi dut eta asko gustatzen zaizkit lan horiek. Baina akademia hartan baztertu egiten zituzten influentzia herrikoiak eta nik besterik ez neukan buruan. Horregatik, txoke batean bizi nintzen.

**Jende asko dago trikitia jotzen aske sentitzen dena eta eguneko orduak horretan emango litzukeena. Eta ez naiz ari plazan aritzen diren trikitilari famatu-  
tuez.**

Egia da, eta liburu hau horri buruz ari da. Ni bakean sentitu nintzen ondorengo azalpenarekin: Gauza desberdina dira larreko musika eta akademiako musika. Ez dituzte gauza berdinak lantzen. Azalpen horrekin asko lasaitu nintzen, guri beti esan baitigute musika guztiak solfeoetik pasatzen direla. Eta solfeoa sakralizatu egin da, solfeoaren alde onak ere zapuzteraino. Liburu honetarako musika estilo desberdinen konparaketa bat egin dut eta besteek nola egiten duten begiratu. Esaterako, rocka, gazteek garajeetan nola lantzen dute? Lehen nola ikasten zuten trikitixa eta orain nola. Euskal Herrikan kanpo nolako eskolak daude? Konparaketa horretan sekulako desberdintasunak aurkitu nituen.

Iruditzen zitzaidan aurkitua genuela linea bat, argibide zenbait eta apunte hauek lagungarri gerta zitezkeela pentsatu nuen; bai irakasleentzat eta baita gurasoentzat ere. Akaso ez metodo bat, baina bai lantzeko moduko





idea batzuk. Horrela hasi nintzen liburua eskribitzen.

**Zuk 15 urte zenituela hartu zenuen trikitia, segur aski lehenago ez zizutelako utzi. Baina liburuan aipatzen duzu nerabezaroan pizten dela musikarako grina nabarmenen.**

Bai, nerabezaroarena argi agertzen zen ibilbideen konparaketan. Gaur egun ezagun diren musikari askoren istorioak arakutzen hasi eta konturatu nintzen gehienon bidea berdintsua dela: haur ginela hasi ginen musikan eta nerabezaroan aldaketa bat izan dugu, hortik aurrera guk aukeratu baitugu zein instrumentu edo musika klase egin nahi genuen.

Nerabezaroa aldaketa handiko garaia da. Ordura arte, gurasoen eraginpean aritzen gara – eta eragin horrek ez du zertan txarra izan –, baina hortik aurrera hasten gara beste eragin batzuetan arreta jartzen, gure gustu eta nahiak garatzen, eta hau ere ez da txarra. Gure buruak lehen aldiz itsusi ikusten hasten gara; nire aurpegia ez zait gustatzen edo nire ahotsa ez zait gustatzen. Lotsak hasten dira eta gure erabakiak hartzen hasten gara. Gure festak egiten hasten gara, gure bidea ibiltzen. Eta ez zen harritzekoa izango musikan ere antzeko gauza gertatzea. Nerabezaroan hartzen ditugun erronketan ez dago atzetik bultzaka ibili beharrik, ez dago estudiatzeko esan beharrik; ez behintzat ikasleek beraiek hautatu dituztenetan.

Kontua da zer egin nerabezaro aurreko tarte horretan. Nire kasuan musikaren eta kantua presentzia handia izan nuen inguruan, familian. Hori garrantzitsua eta ezinbestekoa izango zen gero nire musikarekiko zaletasunean eta trebetasunean ere. Baina musika eskoletara goiz bidaltzen ditugunez gero, bertan egin genezake lan eder bat zaletasuna eta gogoia pizteko.

**Zure etxean musika giro handia zegoela diozu, baina egungo haur gehienek etxean «zero musika», diozu liburuan.**



Ikusten da ikasle askok musikarekiko lotura bakarra musika eskolan duela, eta hori karga handiegia iruditzen zait irakasleentzat. Teknika erakusteaz gain, irakasleak musika zaletasuna kutsatu behar die ikasleei, eta nerabezaroa erabat motibatuta ekarri behar ditu. Ados. Baina irakasleak egin al dezake, berak bakarrik, hori dena? Gehiegi eskatzea iruditzen zait.

Hala ere nerabezaroaren aurretik beste era batera jokatu genezake musika eskoletan, eta

norabide horretan saiatu naiz argibide batzuk biltzen.

Eta gurasoentzat ere badaude pista batzuk. Zuk seme-alabak musikara zaletu nahi badituzu, etxean giro bat egin behar duzu. Eta adibide garbi bat jartzen dut, futbolarena. Etxean futbolzaleak baldin badira, giro hori bizi badute, haurrak ere futbolzaleak izango dira. Eta gainera futbol partidetara eramaten badituzte, are gehiago.

Musika eskoletan dena ezin dute egin, etxean ere landu behar da musikarako giro hori.

**Liburuan jasotzen dituzun gogetek ondo balio dute musikatik kanpoko beste eremu askotarako ere. Seme-alabak zeozertan «onak izatea» baino «ondo izatea» aldarrikatzen duzu, adibidez.**

Badirudi titulu bat behar dugula denerako. Hain mundu lehiakorrrera ekarri ditugu haurrak, tituludunak izatera behartzen ditugu, titulu horrek izugarri kostatu eta sufrimendua eragiten badu ere. Iruditzen zait askoz hobea dela haurrak musikara beste era batera lotzea, gu lotu ginen eran; plazeretik, gozamenetik, ondo pasatzetik...

Titulua atera behar horretan, gainera, frogatuta dago jende askok, titulua lortuta, musika utzi egiten duela. Eta hori porrota da.

**Punta-puntako musikaria izan nahi duenarentzat badago bidea. Beste guztientzat, ordea, ez da hain bide argia.**

Irakasleek esaten digute oso portzentaje txikiak ikasten duela. Ados, ehuneko txiki horrek ikasiko du, baina zer egingo dugu beste guztiekin? Beste jende hori guztia musikara ekarri behar dugu. Ez dira igual munduko onenak izango, baina musikarekin gozatuiko dute. Ez da ezinezkoa. Kanpoko esperientziek argi erakusten dute posible dela. Ikusi Euskal Herrian bertan bertsolariekin eman den jauzia, garai batean “jaino” egin behar zen bertsolari izateko. Gaur egun gehienek gozatzeko adina kantatzen dute. Horixe nahi nuke musikan ere.

Gogoratzen naiz Seattlen –han dena biolina da– oso eskola alternatibo batean egon ginela. Ikasturte amaiera zen eta bukaeraren, gurasoek tabernan zerbait hartzen zuten bitartean, haurrak kanpoan elkarrekin jotzen ari ziren. Horietako zaharrenak dagoeneko unibertsitatera zihoazen beste estatu batera eta denak bere instrumentua besapean hartuta zihoazen. Irudi hori sekulakoa iruditu zitzaidan, gazte horien bizitzaren parte delako jada musika. Eta hori guztiok lor dezakegula uste dut.





¿Y SI  
NO SE  
CUENTA?

*Kontatzen  
ez dena  
ez da*

Gomazko pilota baten ibilbideak azkena eman zion bere bizitzari, amaiera tragikorik iragartzeko inolako zantzurik ez zuen gau batean. 28 urte zituen eta etorkizun beteak ostertzean.

NAIZek eta GARAk ezagutarazi egin zituzten bertsio ofiziala ukatzen ari zena agerian jartzen zuten grabazioak: kale hartan ez zegoela inolako istilurik, eta hori guztia eragin zuena polizia autonomikoaren buru baten erabaki jakin bat izan zela: «Entrar con todo en la herriko», agindu zuen, herrikoan jo eta su sartzeko, alegia. Istant batzuk geroago, distantzia labur batetik jaurtitako gomazko pilotak bete-betean jo zuen.





# Txoriak eskasia sasoiian lagundu, sasoi oparoetan beraiek lagun gaitzaten

INGURUKO  
HEGAZTIAK



**R**achel Carson zientzialari eta ekologista estatubatuar entzutetsuak pasa den mendeko 60ko hamarkadan alarimak piztu zituen bere "Silent spring" (Udaberri isila) liburuarekin. Bertan, nekazaritzan inolako kontrolik gabe erabilitako pozoiek ingurumenean duten eragin tamalgarria salatzen zuen, eta hori irudikatu nahi izan zuen titulutik hasita: nekazaritza kimiko-intentsiboak txoririk gabeko udaberri isil baterantz zuzentzen gaituela adierazi nahi izan zuen. Liburua kontzientzia ekologikoren mugari bat izan zen.

Harrezkero egoera zertxobait aldatu da, baina oraindik ere, arrazoi ezberdinak dirrela medio, hegazti populazioen beherakadak jarraitzen du. Txoriak, ekosistemen orekarako (eta gizakion gozamenerako!) duten balioaz gain, nekazaritzarako onuragarriak ere izan daitezke, umaldietan (udaberri-udan) intsektu kopuru oso esanguratsuak ehizatzen baitituzte, izurrien agerpena kontrolatuz. Horregatik, nekazaritza ekologikoan txori populazioen sustapena estrategia garrantzitsua da, bai ekosistemaren oreka laguntzeko, bai eta, ondorioz, izurrien kontrola errazteko ere.

Gurean badugu hegazti txikien populazioak indartu eta populazioon joerak aztertu nahi dituen ekimen kolektibo bat: Inguruko Hegaztiak proiektua. ENEEken erroldatutako zenbait nekazari ekologikok parte hartzen dute bertan. Europa mailan oso errotua dagoen ekimena da (Erresuma Batuan, esaterako, 500.000 lagunek hartzen dute parte tankera honetako proiektu batean). Euskal Herrian, beste urtebetez, eta dagoeneko badira lau, Inguruko Hegaztiak ekimena aurrera eramaten ari da Urdaibai Bird Center. Bizkaiko Foru Aldun-



URDAIBAI BIRD CENTER

diaren laguntza eta ENEEK beraren parte hartzea dauka proiektuak.

ENEK eta Urdaibai Bird Centerren artean hitzartutako akordioaren eraginez, proiektuan erabiltzen den txori-jan guz-

tiak jatorri ekologikoa dauka eta, ahalik eta maila handienez, bertan ekoizitakoa da (Arabar Lautadan ekoizitako ekilore haziak dira horren adibide). Ekimenaren xedea hurrengo da: txoriek neguan ema-

ten den intsektu eta fruitu kopuruaren murrizketari aurre egin ahal izateko, janlekuak eskuragarri jartzea. Horrek, bide batez, inguruko hegaztiak behatu eta ezagutu ahal izateko aukera ematen du, datu

## NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

interesgarriak azaleratuz. Norberaren etxean janleku bat jartzea nahikoa da, eta ikusten ditugun espezieak erregistratzea horretarako propio Urdaibai Bird Centerrek prestatutako fitxa erraz batzuetan.

### IKERKETA PARTE HARTZAILEA

Boluntarioek inguruko hegaztiak identifikatzeko gakoak ikasten dituzte Urdaibai Bird Centerreko adituen eskutik. Era horretan, txorien problematikak ezagutu, eta habitatak kontserbatzearen garrantziaz kontzientzia hartzea lortzen da. Gainera, parte hartzaileen behaketetan jasotako informazioarekin eskala handiagoko jarraipen bat egin dezake Urdaibai Bird Centerrek, ondorio zehatzagoak ateraz.

Hegazti txikiek bereziki pairatzen dute negua, hotzarekin eta eguraldi makurraekin batera beraien elikadura iturriak nabarmen murrizten direlako. Janlekuak jarrita, egoera latz hori zertxobait lausotzen da, eta gerora, aukera gehiago izango dituzte migrazioa zein ugalketa arrakastaz burutu ahal izateko. Are gehiago, udaberriak aurrera intsektuak berriz ere ugaritzen direnean, txori horiek beraiek gure etxe inguruan geratuko dira, baina kasu horretan zomorroak, euliak, eltxoak eta bestelakoak janez.



2015-2016 neguan hemeretzi partaidek bidali zituzten beraiek jasotako datuak. Zenbaki guztiak bateratuta, ikusi da negua aurrera joan zen heinean kopuruak gora egin zutela modu jarraituan. Urtarrilaren

erdialdera, eguraldi ezegonkorra zela eta, lehen gorakada ikusgarria eman zen, 500 txori inguru erregistratuz. Hurrengo aste-etan, aldiz, kopuruak behera egin zuen, prezipitazioen gutxitzeak eta tenperatu-

ren igoerak elikagai gehiago topatzeko aukera ematen baitiete inguruko txoriei (eta, ondorioz, ez dute gure janlekuen beharrik). Otsaila hilabeterik hotzera eta heze-ena izan zen, beraz, janlekuetan hegaztien kopuru maximoak erregistratu ziren; bigarren astean 600 txori, hain zuzen ere.

Ekimenari esker 27 txori espezie ezberdinen datuak jaso ahal izan dituzte Urdaibai Bird Centerren. Egoiliarak diren hegaztiak neguan zehar nahiko egonkor mantentzen dira. Horiei batzen zaizkie negu-pasan gure inguruan dauden hegaztiak, baita udaberriko migrazioa hastearekin batera, martxoan zehar, hegoaldetik iparralderantz ugaltzera doazen taldeak ere, kopuruak asko igoz.

Pasa den neguan espezie bakoitzarentzat erregistratutako ikuskapen grafikoak, eta baita asteroko eguraldiaren gorabeherak adierazten dituztenak ere eskuragarri daude honako helbidean: [ingurukohegaztiak.blogspot.com.es](http://ingurukohegaztiak.blogspot.com.es). Parte hartu nahi izanez gero, epea zabalik dago eta webgune horretan bertan topatuko dituzue argibide guztiak.

URDAIBAI BIRD CENTER eta ENEEK  
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura  
Ekologikoaren Kontseilua

## Maccabi, kiroltik harago

**Koldo Sagasti**

**D**atorren abenduaren 29an Israelgo Maccabi saskibaloia taldea izango dugu, berriz ere, Gasteizen, Baskoniarekiko norgehiagokan. Tel Avivekoek gurea bisitatu duten bakoitzean bezala, elkartasun aldarriak Zurbanoko pabilioia hartuko du sionisten presentzia gaitzesteko, eta zenbaitek kirolariei boikot egitea zilegi ote den ezbaian jarriko dute. Jakin dezatela kirola eta politika nahastea bidezkoa ez dela argudiatzen duten horiek Maccabik, kiroltik harago, lotura estua daukala palestinarren giza eskubideak eta nazioarteko legedia etengabe urratzen dituen erregimenarekin. Are gehiago 2015ean Israelgo Gobernuak Hasbara Mi-

nisterioa (Propaganda Ministerioa) abian jarri zuenetik, kirolari, artista zein musikarien irudiak baliatuz erregimen sionistak burututako sarraskiak zuritu eta estatu normalizatu baten irudia emateko.

Datuek, gainera, konfirmatu egiten dute harreman hori. 2009ko urtarrilean, Israelgo armada 1.170 hildako palestinar utzi zituen eraso burutzen ari zelarik, Tel Aviveko klubak bere izar entzutetsuenak bidali zituen Gazako zerrendarekiko mugara, soldadu erasotzaileei animoak eman eta armada genozidaren irudia zuri zezaten. 2014ko udan, berriz, 2.219 biktima palestinar utzi zituen armada israeldarrak Gazan bertan egindako erasoak. Orduan

Maccabik partida benefikoa antolatu zuen AEBetako Cleveland Cavaliers NBAko taldearen kontra, Israelgo Defentsa Indarren Lagunen Elkarte erakundea diruz laguntzeko.

Maccabi ez da kirol talde hutsa, Israelgo erregimen sionistaren normalizazio kanpainaren ikur gorenena baizik. Ez bakarrik utzikeriagatik; aitzitik, aktiboki hartu dute parte kanpaina horretan Israelgo gerra krimenak irudiz eta diruz ere lagunduz. Izango da oraindik errealitate hori ikusi nahi ez duenik; giza eskubideekiko gutxieneko begirunea daukan orok, aldiz, jakingo du maccabitarrei adierazten ez direla ongi etorriak Gasteizen. •





Javier Hernandez Landazabal, bere estudioan. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

# infraganti JAVIER HERNANDEZ LANDAZABAL

Pintore hiperrealista esaten diote, baina teknika zehatz eta zorrotzaren jabe baino gehiago da. Ikusten duenaz gainera, pentsatzen duena kontatzen duen pintorea. Errespetu handiz begiratzen zion gaztetan arteari, eta errespetu handia merezi du berak ere hamarkada batzuk geroago.

**E**z omen du inoiz esaten betidanik pintatu, marraztu edo artea egin duenik. «Ez baita egia, uste baitut egiten ari zaren hori artea den kontzientzia hartzen duzunean dela artea. Oso gaztea zarenean jolas egiten duzu, besterik ez. Eta une batean, horrek bi planotara jo dezakeela konturatzen zara: trebetasun hutsera, artisaularantz joko lukeen plano-ara, edo plano garatuxeago batera, kontzeptutik, arrazoitik zerbait duen eta emozioa eragingo duen beste batera». Trebe-

tasuna ez omen da nahikoa, «plus» bat gehitu behar zaiola dio. Artearen hiru hankak, horrenbestez, ondo eginda egotea, hunkitzeko gai izatea eta objektu estetikoak justifikatzen duen pentsamendu bat izatea direla uste du.

Javier Hernandez Landazabal 14 urterekin hasi zen pintore batekin trebatzen eta Gasteizko Arte Eskolan ere ordu asko eman zituen nerabezaroan, baina «artista» terminoa zerbait «oso sakratua» zela uste zuen. Arte Eder-arak egin zituen gero, pintura adarrean, bere kasa. Gasteizen ikasi eta Bilbon azterketak egiten zituen. Bitartean irakasle ikasketak ere egin zituen; «bada-kizu, etxean gosez hilko zarela esaten dizute...». Sekula ez da irakaskuntzan aritu, baina, dioenez, ondo etorri zitzaion egiten duena azaltzeko orduan ikuspegi didaktikoa izateko. Bestetik, Arte Eskolan eskultura egiten zuen, eta karrera bukatu baino lehen, Agurainen pintura eskolak ematen hasi zen. Ilustrazioan ere jarduten zuen, kartelak, komikiak edo liburu azalak egiten, «bizi-rauteko». Besteak beste «Habe», «Habeko Mik» eta «Aizu!» aldizkarietarako lan egin zuen, eta, noizik behin, «Eutsi», «Resiste», «Texturas», «Parentesis» edo «TMEO» bertan ere, hala nola Pamiela argitaletxean. Eta horrela joan zen bere burua definitzen, artearen ikuspegi zabala atzemanda, pinturaren bideari heldu arte. Gainerakoari uko egin gabe, ordea: «Oteizak esan zuen behin eskultura ikasita, eskultorea izanda, ez zuela eskulturarik egin behar. Esan nahi dut zuk zerbait egiten ikasi duzunean, egiten ez baduzu ere, baduzula horren ernamuina, beharbada egunen batean berpiztuko dena».

Gasteizko zenbait gunen publikotan ikusgai daude Hernandez Landazabalen eskulturak. Haren margolan batzuk, berriz, zenbait bilduma publikotan. Eta erakusketa gehiagi egin ez baditu ere, badira dozena batzuk 30 urtetik gorako ibilbidean haren lanak jaso dituztenak.

Komikiaren bidez Antonio Altarriba idazle eta EHUKo Frantses Literaturako katedraduna ezagu-

tu zuen. Bere obrak erakutsi zituzkion eta irudi haiei testua jartzea proposatu zion. Altarribak onartu egin zuen erronka eta lankidetzaz hartatik «Detective» komikia sortu zen. Bere koadroak bineta handi bat izan zitezkeela pentsatu zuen, bunbuilorik gabe, mezu inplizitua dutela, pasadizo bat edo istorio txiki bat kontatzen duten binetak direla.

Pintore hiperrealista gisa sailkatuta dago eta, berak dioenez, ia alferrik da horrelako katalogazioen aurka egitea. Baina ez dago ados. Pintore figuratibo baten koadroek normalean erosle baten horma batean bukatzen omen dute, funtzio apaingarria dute, eta Javierri «oso tristea» begitartzen zaio hori. Eroslearentzat koadroa «etxeko moketarekin ondo ematen duen zerbait baino gehiago izatea» nahi du berak, koadroaren jabeak edo bisitan doanak noizbehinka hura ikustean irakurketaxoren bat, keinu bat, zerbait ateratzea, irribarre bat besterik ez bada ere. Javierren lanak ikusita, irribarre bat baino gehiago ziurtatuta daukala esan daiteke. Ironia, umorea, kutsu surrealistako kontrasteak eta betiere hausnarketarako bidea baititu haren obrak. «Hiperrealismo historikoak bere momentuan, zuzen eta asmo onarekin, espressionismo abstraktuaren erabateko subjektibismoarekin apurtu nahi izan zuen, mihisera errealtate objektibo bat eramanez», dio, eta bere obrak itxuraz hiperrealismoarekin zerikusia duela eman lezakeela onartuta ere, argi du berak egiten duena ez dela hiperrealismoa. Ukaezina da haren teknika zorrotza, koadro bakoitzean egindako lan eskerga eta kalitatekoa, baina Hernandez Landazabal pintore narratzailea da, «plus» bat eranstean duena: «Nik istorio edo kontakizun txiki bat eranstean dut, eta, beraz, baita subjektibotasun puska bat ere».

Gasteizko alde zaharreko Extitxu tabernako horma batean badago Hernandez Landazabal eta Luis Eduardo Aute kantautorea elkarrekin agertzen diren argazki bat, Javierrek duela ia 30 urte egin zuen koadro bat tarteko hasitako harremanaren lekuko. Gutun bidezko harreman hura as-



Urte bakan batzuk joan dira Javierrek bere autorretratu egin zuenetik. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

paldi eten zen, baina duela zenbait hilabete Aute Gasteizera agertu eta kontzertu txiki bat egin zuen Extitxu tabernan. Han, koadro haren kopia bat ikusi zueanean, Javier bertan zegoela jakin gabe, esan zuen koadro haren argazki handitu bat duela etxean, marko batean jarrita. Orduan, jendaurretik pintore gasteiztarrak atera eta aspaldiko partez elkar agurtzeko aukera izan zuten.

Hernandez Landazabalen obraren gaineko informazioaren bila dabilenak haren sailkapena ere topatuko du katalogoetan. Baina sailkapen hori obrek berek egin omen da; «eurak antolatu dira beren kasa», dio Javierrek. Ez ditu koadroak sail baterako edo bestetarako pintatu, «koadro bakoi-tzak beste batera eramaten zaitu, eta denboraren joanean konturatzen zara badirela haien arteko zenbait lotura». Dioenez, beharbada azkenak lehenarekin lotura handiagoa du bigarrenak baino. Edonola ere, bloke edo sail guztietako elementuen artean ere bada konexiorik. «Kontu nola-

bait borgianoa da, beti istorio bera kontatuko balitz bezala». Izan ere, denen artean istorio bakarra osatzen dute, puzzle baten atalak balira bezala. Denak lotzen dituen lokarri nagusia artea bera da, artearen gaineko solasa, alegia: haren gaineko ikuspuntu historikoa, mugimenduak, pintoreak, musikariak... edo artearen elementuak, tresnak... «Baita ofizioak agerrazten dizkizun zalantzak ere. Are gehiago esango nuke, existentziaren beraren gaineko zalantzak».

Horretaz ari dela, ordenagailuan erretratu deskonposatu bat ageri zaio. «Lan honek ere, guztiek bezala, arteari egiten dio erreferentzia, kasu honetan zi-

**«Oso tristea» begitantzen zaio koadroek funtzio apaingarri hutsa izatea. Eroslearentzat koadroa «etxeko moketarekin ondo ematen duen zerbait baino gehiago izatea» nahi du**

**Hernandez Landazabalen obraren gaineko informazioaren bila dabilenak haren sailkapena ere topatuko du katalogoetan. Baina sailkapen hori obrek berek egin omen da**

nemari», “Deconstructing Harry” filmari, hain zuzen, baina Harryren ordeaz, Sarri da erretratua. Eta ondoren beste bat, Gasteizko ZAS kultur espazioan ikusgai dagoena. Marcos komandanteordea da, pipa ahoan. Koadroak Rene Magritten obra

famatuaren izenburu bera du: “Ceçi n’est pas une pipe”.

“Errealitate laua” saileko lanak hiri-paisaiak dira, gehienetan narriatuta, denboraren joanaren arrastoa nabari dutenak. Beste sail bat “Pertsonaia

anakronikoak” izeneko da, aurpegi zurbilak eta antigoaleko jantziak elementu modernoekin harremanetan jartzen dituena. “Meta-artistika” artearen gaineko hausnarketa da, bai objektu

artistikoaren gainekoa bai hura adierazteko moduaren gainekoa. Egia esan, «meta-artistika» sail guztietara hedatzen da, baina sail horrek biltzen du nabarmenen, eta Oteiza eta haren obra lan askotan agertzen zirela konturatu zuean, azpi-sail oteizarra ere osatu zuen. “Natura hiritarra” delako sailean, berriz, naturaren eta artifizioaren arteko elkarketak ditu aztergai, naturaren eta gizakiaren zibilizazioaren arteko orekaren hauskortasuna erakusteko asmoz. Azkenik, enkargu-lanak beste sail batean bildu zituen, ‘Tratua eta erretratua’ izenekoan, hain zuzen. Erretratua baino lehenagoko tratua prezioaren eta alderdi teknikoaren gaineko akordioa da, baina baita tratubidea ere, pertsona ezagutzeko –haren keinuak antzemateko...–, «bestela, haren argazki baten kopia hutsa egingo nuke», dio. Merkatuaz galdetuta, bereizi egiten ditu arte espekulatuak handien merkatua eta bera mugitu izan dena, oro har koadroa gustuko dutelako erosten dutenen merkatua. «Atseginagoa, gozamenerakoa, giza eskalakoa da».

Hernandez Landazabalek Martxoaren 3ko sarraskia oroitzen duen mural erraldoia zuzendu zuen Zaramagan, bederatzi solairuko eraikin baten adreiluzko horman. Veronica eta Christina Werckmeister IMVG Gasteizko mural-ibilbidearen arduradunek eskatu zioten horma-irudi ikaragarria zuzendu eta koordinatzeko, bai eta berak onartu ere, bere hiriko garai hura eta gertakari lazgarri haiek bizi izan baitzuten, eta mural apaingarritik aldentzen zen proiektua baitzen. Lehenik biktimen elkartekoan, Zaramagako bizilagunen, historialarien, artisten ideiak jaso eta koordinatu zituen, eta gero parte hartu zuten lana zuzendu zuen. 30 lagun ziren, gehienek ez zuten margotzeko tekniken berri, eta, hortaz, horiei irakastea ere izan zen Javierren lana. Emaizta, inondik ere, ikusgarria.

Bada, badagoenez, zer miretsia Javier Hernandez Landazabalen obran aurrean, baita zer irakurria eta zer pentsatua ere. •

Xabier Izaga Gonzalez





**Maria Gonzalez Gorosari - @albistetan**  
EHUko irakaslea

## Bortxaketa ez da sexua (2)

arkitektura / hezkuntza / komunikazioa

3 BEGIRADA:

**zenburu hori zeraman beste zutabe bat idatzi nuen hemen uztailean, sanferminetako talde-bortxaketak hedabideetan izan zuen isla argitzeko. Orduan, hedabideek bortxaketari «gogoz kontrako harreman sexuala» esan zioten, sexua eta sexu indarkeria berdinduz. Sexua hainbat pertsonaren artean gorputzarekin izandako plazera da. Sexu indarkeria, ordea, norbaiti eraso egitea edo norbait menderatzea da, sexu jokabidea erabilita (hitzezkoa edota fisikoa). Bortxaketa (eta sexu indarkeria, oro har) ez da sexua, ezta erasotzailearentzat ere. Plazera sentitzeak ez dakar sexua izatea. Umiliazioa dakarten txistek ez dira umorea, nahiz eta kontalariari barregura eragin. Psikopata baten beste norbaiti sufrimendua eragitean plazera sentitzen du, baina hori ez da harremana. Plazera eta indarkeria bereiztea oinarritzkoa da.**

Sanferminetako kasuak, hala ere, mediatikoki luze jarraitu du. Asteon, emakume bat bortxatzen ari zirela bost erasotzaileek ipintzen zituzten aurpegierak argitaratu dituzte:

• «*Los rostros del Prenda y su 'Manada' mientras hacían 'turno' en el portal de Pamplona*» (“El Español”, 2016/12/04).

Auziak sekretupeko sumarioa zuen, epaileak uste zuelako hedabideak bideoa argitaratzeko prest zeudela. Arrazoia zuen. Zer informazio ematen du guardia zibilak grabatutako bideoak? Emakumearen bertsioa ahultzeko erabiltzen dute:

• «*El abogado de uno de los acusados asegura que (...) los vídeos grabados (...) prueban que las relaciones con la chica de 18 años fueron 'consentidas'*». (“Diario de Sevilla”, 2016/09/02).

Sanferminetako guardia zibilaren lagunek, besteak beste, aho bidezko bortxaketa gauzatu zuten. Bideoan, hortaz, emakume bat zakil bat xurgatzen ikusten da:

• «*Me obligaron a hacer una felación a cada uno y luego me penetraron los cuatro*» (“Diario Vasco”, 2016/11/30).

Hori ez dator bat buruan daukagun bortxaketaren estereotipoarekin, non ezezagun batek edo gehiagok emakume bati indarrez eusten dioten eta, emakumeak defenditzeari etsi barik, zakila sar-

tzen dioten. Sexu indarkeria hori baino gehiago da. Sexu indarkeria da emakume batek nahi ez duenean, sexu jokabideak esatea edo egitea. Ez du axolak berak zer jarrera daukan. Erasoa da batek eraso egiten diolako. Gainera, hedabideek emakumearen hasperenak entzuten direla azpimarratu dute:

• «*Lo que sí reflejan los agentes [foruzainak] son gemidos de mujer, no explicitando si son de queja o complacencia*». (“El Español”, 2016/12/04).

**Diego Yllanese Nagore Laffage hil zuenean ere, kaleko irudiak zabaldu zituzten, bera hilko zuen gizonarekin zer jarrera normalizatua zuen erakusteko, nork hilko gaituen jakiteko betebeharra izango bagenu bezala.** Hasierean gura izatea eta, geroago, jarraitu nahi ez izatea (agindutako jokabide sexualagatik, praktikengatik, moduagatik edo gizona biluzik ikustean bere gorputza gustatu ez zaigulako) berdinduz.

Azaroaren erdialdean Hegoafrikan Willem Oosthuizen eta Theo Martins Jackson (bi gizon zuri) atxilotu zituzten, Victor Rethabile Mlotshwa (nekezari beltza) hilkutxa batean sartu zutelako, lurperatuko zutela mehatxatuz.

Oosthuizenek eta Jacksonek bideoa grabatu eta sare sozialetan zabaldu zuten:

• «*Un hombre negro es obligado a meterse en un ataúd*» (“El Mundo”, 2016/11/17).

Sare sozialetan zabaldu zutenean, haien lagunei barregura eragin zien bideoak. Bideoan erasotzaile zurietako batek hilkutxa ixtean Mlotshwak erresistentziarik ipintzen ez duela ikusten da. Bideoak indarkeriarik erakusten ez badu, Mlotshwak gertatutakoa onartu zuela esan nahi al du? Ignacio Ramonetek dioen bezala, «*ver no es comprender*». Gertatutakoa pairatu duenak gertatutakoa definitzen du: eraso arrazista da, nahiz eta batzuentzat umorea izan.

• «*Prisión para dos granjeros sudafricanos por encerrar a un hombre negro en un ataúd*» (“Abc”, 2016/11/17).

• «*Tensión racial en Sudáfrica al meter un blanco a un negro en un féretro y amenazar con quemarlo*» (“La Vanguardia”, 2016/11/17).

Bortxaketa ez da sexua, bortxatzaileentzat ere ez. Sexu indarkeria gorputzaren edozein ataletan gauza daiteke, gorputzaren jabeari gogoz kontra egin diotelako. •




Sexu indarkeria ez da sexua, erasotzailearentzat ere ez.

Monika del Valle | ARGAZKI PRESS



# BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



Jon KUTXATEKA. MUNOA FUNTSA

## DONOSTIAKO HARRESIAREN ERAISKETA, DUELA MENDE ETA ERDI

1863ko maiatzaren 4a astelehen euritsua zen. Donostiako Udalak harresien eraisketaren ekitaldi ofiziala egin zuen. Sasoiko kaze-tek ziotenez, hiriko bizilagunak harresiaren inguruan elkartu ziren goizean. Segizioak, musika bandaren eta zenbait abesbatzaren atzean, Santesteban maisuak konposatutako "Himno al derribo de las murallas" abestu zuen. Ereserkiaren letrak honela dio: «...*un muro le oprimía, un símbolo de guerra, el muro ya por tierra, verá deshecho al fin*» («harresi batek zapaltzen zuen, gerra sinbolo batek, azkenik harresia lurrean, desaginda ikusiko du»). Ekitaldiaren buruan Donostiako alkate Eustasio Amilibia zegoen, eta harresiaren lehen harria kendu zuen. Hondakinen parte bat Santa Katalina aldera eraman zuten, paduretako betegarri gisa. Sasoi hartan Donostiak 8.000 bizilagun zituen. Urumeaz bestaldetik egindako argazkian, gotorlekuen eraispeneren ondoko lehen zuloa ikusten da, eta, zuloaren parean, Hornos izenarekin ezagutzen zen kuboak, eta, aurreraxeago, Amezketa kuboak. Irudi hau, balio ikaragarriko beste batzuekin batera, Kutxatekako Munoa funtsekoa da.



Eta orain, kioskoetan ere!




EKHEk eta GARAK kultur ondare aparta berreskuratu dute euskarri digitalean hedatzeko

# IKUSKA

1979 eta 1984 artean, euskal zuzendari talde batek, Antxon Ezeizaren koordinaziopean, garai hartako Euskal Herriaren erradiografia egin zuten: "Ikuska" euskarazko dokumental bilduma.

Liburua + 3 DVD

20 €



\* Liburua bi hizkuntzatan eta filmak euskaraz aukera bietan

Eta eskaeraren bidez:

USB txartela formatuan

14 €

Naiz Denda ([denda.naiz.eus](http://denda.naiz.eus))

edo 944245556 tfnoan.

(astelehenetik ostiralera 09.00etatik 15.00etara)

Ezinbesteko dokumentua

garai hura eta gaurkoa ulertzeko 21 dokumental, 15 zuzendari 3 ordu eta 40 minutuko iraupena

- |                                                      |                                              |                                                   |
|------------------------------------------------------|----------------------------------------------|---------------------------------------------------|
| 0 "Erreferenduma" Antxon Ezeiza                      | 7 "Barandiaran" Talde-lana                   | 14 "Zuberoako artzainak" Antxon Ezeiza            |
| 1 "Ikastolak" Jose Luis Egea                         | 8 "Arabako herrien heriotza" Koldo Larrañaga | 15 "Euskaldunberriak" Juan Miguel Gutierrez       |
| 2 "Gernika" Pedro Olea                               | 9 "Euskal artistak" Jose Julian Bakedano     | 16 "Donibaneko arrantzaleak" Antxon Ezeiza        |
| 3 "Bilboko hiri espekulazioa" Anton Merikaetxebarria | 10 "Kontrasteak" Iñaki Eizmendi              | 17 "Matxitxako itsasguda" Pedro de la Sota        |
| 4 "Euskal Telebista" Xabier Elorriaga                | 11 "Erribera" Montxo Armendariz              | 18 "Bertsolaritza" Antxon Ezeiza                  |
| 5 "Elebitasuna" Koldo Izagirre                       | 12 "Euskal emakumeak" Mirentxu Loyarte       | 19 "Euskal kulturaren zabalpena" Pedro de la Sota |
| 6 "Euskara galdutako Nafarroa" Juanba Berasategi     | 13 "Euskal kanta berria" Imanol Uribe        | 20 "Sailaren laburpena" Antxon Ezeiza             |

**GARA**

**EKHE** s.a.  
euskal komunikabideen  
hedapenerako elkarte

LAGUNTZAILE:

EUSKADIKO FILMATEGIA  
FILMOTECA VASCA

LAGUNTZAILE:

bertan  
FILMEAK

BABESLE:

**LABORAL**  
kutxa

